

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

- 3441** *3/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, alderdi politikoen ekonomia- eta finantza-jarduera kontrolatzekoa. Horren bidez, honako lege organiko hauek aldatzen dira: 8/2007 Lege Organikoa, uztailaren 4koa, alderdi politikoen finantzaketari buruzkoa; 6/2002 Lege Organikoa, ekainaren 27koa, alderdi politikoen, eta 2/1982 Lege Organikoa, maiatzaren 12koa, Kontu Auzitegiarena.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.
Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege organiko hau onartu dutela, eta, Nik, hemen, berretsi egiten dudala.

AURKIBIDEA

Lehenengo artikulua. Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoa aldatzea.

Bigarren artikulua. Alderdi politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoa aldatzea.

Hirugarren artikulua. Kontu Auzitegiari buruzko maiatzaren 12ko 2/1982 Lege Organikoa aldatzea.

Lehenengo xedapen gehigarria. Diru-laguntzen zenbatekoa egokitzea.

Bigarren xedapen gehigarria. Datu pertsonalak babestea.

Hirugarren xedapen gehigarria. Alderdi politikoei bahitutako ondasun eta eskubideak itzultzea edo konpentsatzea.

Lehenengo xedapen iragankorra. Estatutuak egokitzea.

Bigarren xedapen iragankorra. Kontabilitate Plana egokitzea.

Hirugarren xedapen iragankorra. Tokian tokiko kontuak bateratzea.

Xedapen indargabetzailea. Arauak indargabetzea.

Azken xedapenetatik lehena. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 1/1985 Lege Organikoa aldatzea.

Azken xedapenetatik bigarrena. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea aldatzea.

Azken xedapenetatik hirugarrena. Legegintzako herri-ekimena arautzen duen martxoaren 26ko 3/1984 Lege Organikoa aldatzea.

Azken xedapenetatik laugarrena. Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzea.

Azken xedapenetatik bosgarrena. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra aldatzea.

Azken xedapenetatik seigarrena. Lege arruntaren maila.

Azken xedapenetatik zazpigarrena. Aforamenduak.

Azken xedapenetatik zortzigarrena. Alderdi politikoei egokitutako kontabilitate-plana.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. Foru-ogasunak.

Azken xedapenetatik hamargarrena. Indarrean jartzea.

HITZAURREA

Alderdi politikoak bizitza politiko, ekonomiko eta sozialaren funtsezko eragile dira. Herritarrek gai publikoetan parte hartzeko bide gisa jarduten dute, eta eskubideen subjektu dira. Estatuaren beraren egituraren parte hartzen dutenez, betebeharrak jakin batzuk bete behar eta betetzen dituzte. Horrenbestez, erantzukizunarekin batera, eredu garrantzitsuak izan behar du nagusi entitateon jarduketan, demokraziaren zentraltasun soziala sostengatzen baitute.

Espainiako Konstituzioak adierazten duen moduan, alderdi politikoek aniztasun politikoa adierazten dute, herri-nahia eratzen eta azaltzen dute, eta politikan parte hartzeko oinarritzko tresna dira. Alderdi politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoaren zioen azalpenak berak dioen moduan, alderdi politikoak elkarketa oinarri duten erakunde pribatuak dira, arkitektura konstituzionalaren funtsezko zatia osatzen dute eta lehen mailako garrantzi konstituzionalako funtzioak betetzen dituzte. Gainera, badute bigarren izaera bat ere, doktrinak behin eta berriz aipatua beren garrantzi konstituzionalagatik eta alderdiek duten erakunde-bermeagatik Konstituzioaren aldetik.

Aipatutako lege organiko horrez gain, Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoak ere arautzen du esparru hori. Izan ere, azken lege organiko hori alderdi politikoen funtzionamenduaren funtsezko auzi batez arduratzen da; berorien jarduera garatu ahal izateko baliabideak lortzeaz, hain zuzen.

Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoa erreformatzeari buruzko urriaren 22ko 5/2012 Lege Organikoan azken arau horren zenbait aldaketa jasotzen dira, diru-sarreraren nahikotasuna eta zorrotasuna behar bezala uztartzeko, guztia ere alderdi politikoen finantzaketa kontrolatzeko mekanismoak sendotzea eta horien jarduketak izan behar duen gardentasuna handitzea helburu.

Aitzitik, gizartearen iritziarekin eta parlamentuko talde gehienek 2013ko otsailean Diputatuen Kongresuan sinatutako konpromisoarekin bat etorritik, gaur egun behar-beharrezkoa da alderdi politikoen ekonomia- eta finantza-jarduera zaintzeko bestelako neurriak txertatuko dituen lege bat onartzea, alderdiek izan behar duten gardentasuna eta kontrola are zorrotzagoa izan dadin.

Alderdi politikoen ekonomia- eta finantza-jarduera kontrolatzeko lege organiko hau onartu ahal izateko, honako lege hauek ere aldatu behar izan dira, arestian aipatutako bi legez gain: maiatzaren 12ko 2/1982 Lege Organikoa, Kontu Auzitegiari buruzkoa; uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa, Botere Judizialari buruzkoa; uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena; martxoaren 26ko 3/1984 Lege Organikoa, Legegintzako herri-ekimena arautzen duena; ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa, Hauteskundearen Araubide Orokorriari buruzkoa; eta azkenik, azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzei buruzkoa.

Aurrekoari jarraiki, legea honela dago banatuta: hiru artikulua –Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa, Alderdi Politikoen Lege Organikoa eta Kontu Auzitegiari buruzko Lege Organikoa aldatzen dira, hurrenez hurren–, hiru xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor, xedapen indargabetzaila bat eta hamar azken xedapen.

Lehenengo artikuluan, alderdi politikoen finantzaketa-araubidean eragiten duten hainbat berritasun txertatzen dira. Horien artean, honako hauek azpimarra daitezke: dohaintzak egiteko finantzaketa-bideen erregulazioa hobetu da; alderdi politiko bati xedaturiko dohaintzen kontzeptua argitzen da, eta horiek partaidetza bidezko finantzaketa-mekanismoen bitartez egin behar dira; bidegabeki egindako dohaintzak itzultzeko eta horiek Altxor Publikoan txertatzeko kasuak aurreikusi dira; pertsona juridikoei ezin izango dizkiete dohaintzak egin alderdi politikoei eta kreditu-erakundeek ezingo dute zorrik barkatu; gardentasun-printzipioari jarraiki, alderdi politikoei eta fundazioei eta lotutako edo mendeko entitateei publiko egin behar duten ekonomia- eta kontabilitate-informazioa areagotu da; ekonomia- eta finantzaketa-kudeaketaz arduratzen den pertsona arautu da eta hark Kontu Auzitegiaren Batzorde Mistoaren aurrean agertu beharko du; alderdiek barne-instrukzio batzuk onartu beharko dituzte kontratazioari dagokionez eta jarduerak oinarritzat hartu beharko dituen printzipioak zehaztu beharko dituzte; finantzaketa-esparruan, falta astunak eta arinak eta horiek preskribatzeko epeak txertatu dira falta oso

astunekin batera; zehapenak aurreikusi dira arau-hauste mota bakoitzarentzat; eta fundazio edo erakunde baten eta alderdi baten arteko «lotura» zehazten duten egiturak aztertuko dira.

Bigarren artikuluan, Alderdi Politikoei buruzko Lege Organikoko hainbat xedapen aldatzen dira. Hala, Europar Batasuneko herritar guztiei aitortzen zaie alderdi politikoak sortzeko gaitasuna, Europako Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari egindako Txostenean (2012/03/09) kontuan hartzen den irizpideari jarraiki. Txosten hori 94/80/EB Zuzentarauaren aplikazioari buruzkoa da eta, haren bidez, nazionalak ez diren baina estatu kide batean bizi diren Batasuneko herritarrek udal hauteskundeetan parte hartzeko duten sufragio aktiboaren eta pasiboaren eskubidea egikaritzeko modalitateak finkatzen dira. Bestalde, estatutuek jaso behar duten gutxieneko edukia xedatzen da, hala errazagoa izango baita praktikan alderdi politikoaren arteko desberdintasuna gainditzea eta haien funtzionamendu demokratikoan sakontzea. Gainera, alderdiak erantzukizun penaldun subjektu gisa hartzen dira eta, beraz, prebentziorako eta ikuskapenerako sistema bat onartu behar dute, Zigor Kodean aurreikusten diren ondorioetarako. Bestalde, alderdi politikoetako afiliatuen araubide juridikoa argitzen da, eta horrek araua teknikoki hobetu egiten du. Garrantzi praktiko handiko berrietasunen artean, alderdiak azkentzeko deklarazio judizialaren prozedura bat txertatu da. Haren bitartez, Alderdi Politikoen Erregistroaren funtzionamendua garbitu eta hobetuko da; izan ere, esku-hartze judiziala bermatzen duen prozedura bat bideratu da, aktibo ez dauden alderdien erregistroko inskripzioa baliogabetzeko, kasuan kasuko egoera kontuan hartuta. Azkenik, eta berrietasun garrantzitsuenen artean, Alderdi Politikoen Erregistroan lotutako fundazioak eta entitateak inskribatzeko derrigortasuna zehaztu da, eta hori nahitaezko baldintza izango da diru-laguntzen deialdietan parte hartu ahal izateko.

Hirugarren artikuluan aurreikuspen berriak txertatu dira Kontu Auzitegiari buruzko Lege Organikoari dagokionez. Alde horretatik, ikuskapen-funtzioak hedatu egin behar du, eta egiaztatu behar du sektore publikoaren ekonomia- eta finantza-jarduerak betetzen dituela gardentasunarekin, ingurumen-jasangarritasunarekin eta genero-berdintasunarekin lotutako printzipioak. Erakunde horri erregelamenduak egiteko ahalmena esleitu behar zaio bere buruaren antolaketari dagokionez, eta, horrez gain, Auzitegiaren eta erakunde publiko eta kreditu-erakunde batzuen artean lankidetzarako formulak zehazteko ahalmena ere izan behar du, hala lortuko baita alderdi politikoaren eta horiei lotutako fundazio eta entitateen kontuak behar bezala ikuskatzeko informazioa.

Xedapen gehigarriari dagokionez, batetik, alderdiek jasotzen dituzten diru-laguntza publiko jakin batzuei egonkortasuna eskaintzeko mekanismo bat aurreikusten da, iturri pribatuetatik finantziazioa eskuratzeko mugak gogortu egin baitira. Eta, bestetik, pertsona fisikoek alderdi politikoei egindako dohaintzen urteko zerrendan jasotzen diren datuen izaera bereziki babestua xedatzen da, eta horiek Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan zehaztutako araubidea bete beharko dute.

Lehen xedapen iragankorrak epe bat eskaintzen die Erregistroan inskribatuta dauden alderdiei, estatutuak Alderdi Politikoen Lege Organikoan aurreikusten den gutxieneko eduki berrira egokitu ahal izateko; gainera, betebeharrak hori bete ezean, azkentzeko aitorten judizialaren prozedura jarriko da martxan. Hala, alderdien erregistroaren garbiketa erraztuko da; izan ere, hainbat mila daude erregistratuta, nahiz eta horietako asko aktibo ez egon. Bigarren xedapen iragankorrean, alderdi politikoek Kontu Auzitegian aurkeztu behar duten kontabilitate arloko dokumentazioari aplikatu beharreko araubidea aurreikusten da, erakunde hori alderdi politikoei egokitutako Kontabilitate Planari buruzko lege honetara egokitzen ez den heinean, azken xedapenetatik zortzigarrenean xedatzen denari jarraiki.

Aurrekoarekin bat etorritik, xedapen indargabetzaileak inolako ondorioz gabe utziko du alderdi politikoaren finantzaketari buruzko Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarria.

Amaitzeko, azken xedapenetan, araua indarrean jartzeaz gain eta hainbat xedapen lege arrunten maila emateaz aparte, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen aldaketak jasotzen dira, biak ere alderdi politikoak azkentzeko

aitorpen judizialaren prozeduraren sorreratik eratorriak, bigarren artikuluan aurreikusitako moduan. Gainera, Legegintzako herri-ekimena arautzen duen martxoaren 26ko 3/1984 Lege Organikoaren aldaketa bat jasotzen da, hala, Batzorde Sustatzaileak izendatutako pertsona batek Diputatuen Kongresuko Batzordean agertzeko modua izango du, herri-ekimenaren aurkezpena justifikatzen duten arrazoiak azal ditzan, betiere osoko bilkuraren erabakiak hartzeko eztabaida baino lehen. Era berean, Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzea aurreikusten da, alderdiek hauteskunde-programa postaz bidaltzeko jasotzen dituzten diru-laguntzen zenbatekoa ehuneko hogeitaz murrizteko. Horrez gain, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra aldatu da, ustelkeriarekin lotutako delituen eraginez kondenatutako pertsonen diru-laguntzak jasotzeko aukerarik izan ez dezaten. Azkenik, Auzitegi Gorenari eta Justizia Auzitegi Nagusiei agintariak eta kargu publikoak auzipetzeko gaitasuna mugatzeko konpromisoa jasotzen da xedapenotan, eta foru-ogasunen araubideari erreferentzia egiten zaio.

Laburbilduz, lege organiko hau onartzeak parlamentuaren konpromisoa betetzen eta bertan jasotzen diren eskakizunen esparrua zabaltzen du, gaur egun ezinbestekotzat jotzen diren beste hainbat neurriekin batera, guztia ere alderdi politikoei eta horiekin lotutako fundazioei eta entitateei kontrolerako mekanismo gehiago eta gardentasun handiagoa eskatzeko.

Lehenengo artikulua. *Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoa aldatzea.*

Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoa honela geratuko da:

Bat. Beste era batera idatzita geratuko dira 2. artikuluko 2. zenbakiko a) eta b) letrak:

«a) Afiliatuen kuotak eta ekarpenak.

b) Alderdiaren jarduerari dagozkien produktuak, eta tradizioz beren egoitzetan garatu diren eta herritarrekin harremana eta elkarrekintza errazten duten jarduerari dagozkienak, guztiak ere Kontu Auzitegiaren kontrolpean jarri eta kontabilitate-dokumentazioan jasota geratzen baldin badira; norbere ondarearen kudeaketatik eratorritako etekinak; beren sustapen-jardueretatik eratorritako irabaziak eta beren helburu zehatzekin lotuta eskain ditzaketan zerbitzuetatik lor daitezkeenak.»

Bi. Lau zenbaki berri gehitu zaizkio 3. artikuluari:

«Sei. Baldin eta artikulua honetan aurreikusitako Estatuaren urteko diru-laguntzek hamabi milioi euroko zenbatekoa gainditzen badute, Ministroen Kontseiluak alde aurretik baimena eman beharko du horiek lagatzeko. Baimen horrek ez du esan nahi gastua onartzen denik, hori diru-laguntza emateaz arduratzen den organoari baitagokio.

Zazpi. Urteko diru-laguntzak ez dira ordainduko onuradunak ez badu egiaztatzen zerga-betekizunak eta Gizarte Segurantzako betekizunak erregelamendu bidez zehaztutako moduan betetzen dituela; ez da ordainduko, halaber, diru-laguntza edo laguntzaren bat itzultzeko badu.

Zortzi. Urteko diru-laguntza arruntan ordainketa atxikiko zaie, zehaztutako epeen barnean, beren kontuak 14. artikuluari jarraiki aurkeztu eta horiek publiko egiteko betebeharrak bete ez dituzten alderdiei.

Bederatzi. Alderdi politikoei diru-laguntzak ematen dizkieten erakunde eta administrazio publiko guztiek publiko egin beharko dituzte ordaindutako diru-laguntzen eta jasotzaileen inguruko xehetasunak, gutxienez urtean behin, betiere Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatzen denari jarraiki.»

Hiru. 4. artikuluan beste titulu bat txertatu da eta beste era batera idatzita geratuko da:

«4. artikulua. *Ekarpenak, dohaintzak, parekatutako eragiketak eta zorraren baldintzei buruzko akordioak.*

Bat. Afiliatuen ekarpenak.

Alderdi politikoei afiliatuen kuotak eta ekarpenak jaso ahal izango dituzte, estatutuetan zehaztutakoari jarraiki.

Bi. Alderdi politikoentzako dohaintza pribatuak.

a) Alderdi politikoei ekarpen ez-finalista izendunak jaso ahal izango dituzte, dirutan nahiz jenerotan, pertsona fisikoen aldetik, betiere lege honetan zehazten diren betekizunak, baldintzak eta mugak errespetatuz.

Lege honetan zehaztutakoari jarraiki jasotako dohaintzak ezeztaezinak izango dira, eta dohaintza egin duen entitatearen berezko jarduerak gauzatzera bideratuko dira.

Alderdi politikoei ezin izango dute pertsona fisikoen dohaintzarik onartu edo jaso, ez zuzenean, ez zeharka, baldin eta, jarduera ekonomiko edo profesional bat gauzatzen duten bitartean, sektore publikoko kontratuen legedian aurreikusten den eta indarrean dagoen kontratu baten parte badira.

b) Alderdi politikoei dohaintzan emandako zenbatekoak kreditu-erakundeetan helburu horrekin bakarrik irekitako kontuetan sartu beharko dira. Kontu horietan, dohaintza horiei dagozkien diru-zenbatekoak sartu beharko dira, ez besterik. Horretarako, alderdi politikoei behar bezala jakinaraziko die kontuak dituen kreditu-erakundeei eta Kontu Auzitegiari zein kontu dauden dohaintzak jasotzera xedatuta. Kreditu-erakundeek urtero jakinaraziko diote Kontu Auzitegiari zer dohaintza jaso dituzten kontu horietan.

c) Alderdi politikoei egozten ez zaizkion arrazoiak direla-eta, dohaintza b) letran adierazitakoa ez den beste kontu batean gauzatu bada, hura dohaintzak jasotzera xedaturiko kontu batera lekualdatu beharko da ekitaldia itxi eta hiru hilabeteko epearen barruan. Gainera, egoera horren berri eman beharko zaio Kontu Auzitegiari, eragindako diru-sarrerak banan-banan adieraziz.

d) Aurreko b) letran aipatzen diren dohaintzak egiten direnean, jasota geratu beharko da noiz sartu den dirua, zenbat diru sartu den eta zein den dohaintza-emailearen izena eta identifikazio fiskalaren kodea. Dirua gorde duen kreditu-erakundeak egiaztagiria eman beharko dio dohaintza-emaileari, eta aurreko datu horiek jaso beharko dira egiaztagiri horretan. Dirutan egiten diren dohaintzak onartu direla ulertuko da, baldin eta, aurreko zenbakian zehaztutako epean, hura ez bazaio dohaintza-emaileari itzuli, haren gordailuan jaso edota Altxorrean sartu.

e) Jenerotan egindako dohaintzak onartu direla ulertuko da, baldin eta alderdi politikoei ziurtagiria egiten badu. Ziurtagiri horretan, dohaintza-emailearen nortasuna ez ezik, emandako ondasuna egiaz entregatu dela egiaztatzen duen dokumentu publikoaren edo dokumentu kautoaren berri jasoko da, eta berriaz adieraziko da dohaintza atzerabiderik gabea dela.

Jenerotan egindako dohaintzak baloratzeko, Irabazi-asmorik gabeko erakundeetan eta mezenasgorako zerga-pizgarrien tributu-araubideari buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legeak xedatutakoa hartuko da kontuan.

f) Pertsona fisiko batek egindako dohaintzen balioak baimendutako urteko gehieneko muga gainditzen duenean, gehiegizko zenbateko hori dohaintza-emaileari itzuliko zaio. Hori ezinezkoa izan bada, ondasunaren kantitate edo baliokide metalikoa Altxorrean txertatuko da ekitaldia itxi eta hiru hilabeteren barruan.

g) Edonola ere, eta salbuespenez dohaintza-emailea ezin izan bada identifikatu, dohaintzaren zenbatekoa Altxorrean sartuko da ekitaldia itxi eta hiru hilabeteren barruan.

h) Aurreko letretan xedatutakoa aplikatuko da, halaber, dohaintzak finantziazio parte-hartzailerako mekanismoen bitartez egiten direnean.

i) Ez dira dohaintza gisa hartuko dirutan edota ondasun higigarrien zein higiezinaren bitartez egiten diren eskaintzak, baldin eta batasun, federazio, konfederazio edo koalizio iraunkor bereko alderdi politikoek eginak badira.

Hiru. Parekatutako eragiketak.

Alderdi politikoek ezingo dute onartu, ez zuzenean, ez zeharka, hirugarrenek beren gain hartzea alderdiaren ondasunen, obren edo zerbitzuen kostua, ezta alderdiaren jarduerak eragin dezakeen beste zernahi kostu hartzea ere.

Lau. Zorraren baldintzei buruzko hitzarmenak.

Alderdi politikoek kreditu-erakundeekin akordioak egin ahal izango dituzte, haiekin dituzten zorraren baldintzen inguruan, betiere antolamendu juridikoari jarraiki; nolahi ere, aplikatutako interes-tasa ez da, inola ere, merkatuko baldintzei dagokiena baino baxuagoa izango. Alderdi politikoak eta kreditu-erakundeak Kontu Auzitegiari eta Espainiako Bankuari jakinarazi beharko dizkiete, hurrenez hurren, akordio horiek eta, bereziki, horiek benetako bermeak baliogabetzea eragiten badute.

Kreditu-erakundeek ezin izango diete alderdi politikoei zorra barkatu, ez erabat, ez partzialki. Ondorio horietarako, zorraren barkamen gisa ulertuko da kredituaren printzipalaren edo iraungitako interesen baliogabetze totala edo partziala, edota interes-tasa merkatuko baldintzetan aplikatutako azpitik birnegoziatzea.»

Lau. 5. artikulua beste era batera geratuko da idatzita:

«5. artikulua. *Dohaintza pribatuen mugak.*

Bat. Alderdi politikoek ezingo dituzte onartu edota jaso honako hauek, ez zuzenean, ez zeharka:

- a) Dohaintza anonimoak, finalistak edota ezeztagarriak.
- b) Pertsona bakar baten dohaintzak, urteko 50.000 euro baino handiagoak badira.
- c) Pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeen dohaintzak.

Aurreko b) letran aurreikusitako muga horretatik salbuetsita geratuko dira ondasun higiezinaren dohaintzak, betiere 4.2 artikuluko e) letran zehaztutako baldintzak betetzen badira.

Bi. 25.000 euro baino gehiagoko dohaintzak eta ondasun higiezinaren dohaintzak beti jakinarazi beharko dizkio alderdi politikoak Kontu Auzitegiari, onartu eta hiru hilabeteren barruan.»

Bost. 7. artikulua beste era batera geratuko da idatzita:

«7. artikulua. *Atzerritarren ekarpenak.*

Bat. Alderdi politikoek dohaintza ez-finalistak jaso ahal izango dituzte atzerriko pertsona fisikoen aldetik, betiere lege honetan zehazten diren ekarpen pribatuetarako mugak, betekizunak eta baldintzak kontuan hartuta, eta aldaketen kontrolari eta kapitalen mugimenduari buruz indarrean den araudian jasotako eskakizunak beteta.

Bi. Alderdiak ez dute inolako finantziazio-biderik onartuko atzerriko gobernuen, enpresa publikoen, entitateen eta erakundeen aldetik, ez eta horiekin zuzenean nahiz zeharka lotutako enpresen aldetik ere.»

Sei. 8. artikulua beste era batera geratuko da idatzita:

«8. artikulua. *Kuoten eta ekarpenen justifikazioa.*

Bat. Afiliatuen kuotak eta ekarpenak kreditu-erakundeetan helburu horrekin bakarrik irekitako kontuetan sartu beharko dira.

Bi. Kuotak jasotzera xedaturiko kontuetan egindako diru-sarrerak horietatik eratorritakoak bakarrik izango dira, eta banku-helbideratze bidez egin beharko dira afiliatua titularra den kontu baten bitartez, edo alderdiak adierazitako kontuan diru-sarrera izenduna eginez.

Hiru. Gainerako ekarpen pribatuak aurreko lerrokadan zehaztutakoa ez den beste batean ordaindu beharko dira. Edonola ere, idatziz jasota geratuko dira ezarpen-data, diru-sarreren zenbatekoa eta afiliatuaren edo ekarpen-egilearen izen osoa. Dirua gorde duen kreditu-erakundeak egiaztagiria eman beharko du, eta aurreko datu horiek jaso beharko dira egiaztagiri horretan. 25.000 euro baino gehiagoko ekarpenak –banaka edo taldean egindakoak– eta ondasun higiezinaren dohaintzak beti jakinarazi beharko dizkio alderdi politikoak Kontu Auzitegiari, ekitaldia itxi eta hiru hilabeteren barruan.»

Zazpi. 9. artikuluko 1. zenbakia beste era batera geratuko da idatzita:

«Bat. Titulu honen helburua alderdi politikoaren zerga-araubidea erregulatzea da, baita pertsona fisikoek haiek finantzatzen laguntzeko egiten dituzten dohaintzei, ekarpenei eta kuotei aplikatu beharrekoa ere.»

Zortzi. 10.bi artikuluko c) letra beste era batera geratuko da idatzita:

«c) Pertsona fisikoek egindako dohaintza pribatuak eta irabazi-asmoz egindako eskurapenen ondorioz agerian jarri diren ondarearen bestelako gehikuntzak.»

Bederatzi. 13. artikulua beste era batera geratuko da idatzita:

«13. artikulua. *Kuoten, ekarpenen eta dohaintzen justifikazioa.*

Aurreko artikuluan zehaztutako zerga-araubidea aplikatzeko, alderdi politiko jasotzaileari egindako ekarpenaren, dohaintzaren edo kuotaren egiaztagiria izan beharko du pertsona fisikoak.»

Hamar. Legearen IV. titulua aldatu egin da, eta honela geratuko da idatzita:

«IV. TITULUA

Kontabilitate-betebeharrak eta ekonomia- eta finantza-kudeaketa

14. artikulua. *Alderdi politikoaren kontabilitateari dagozkion betebeharrak.*

Bat. Alderdi politikoek kontabilitate-liburu xehatuak izan beharko dituzte uneoro, haien finantza- eta ondare-egoera ezagutzeko eta lege honetan aurreikusitako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzeko.

Bi. Diruzaintza, Inbentario eta Balantzeen liburuetan honako informazio hau jaso beharko da, oro har onartutako kontabilitate-printzipioei jarraiki:

- a) Ondasun guztien urteko inbentarioa.
- b) Diru-sarreren kontua, gutxienez diru-sarreren honako kategoria hauek jasota:

- Afiliatuen kuoten eta ekarpenen zenbateko globala.
- Alderdien euren ondaretik eratorritako diru-sarrerak.
- 4. artikuluan jasotzen diren dohaintzetatik eratorritako diru-sarrerak.
- Diru-laguntza publikoak.

- Alderdiaren jardueretatik eratorritako etekinak.
 - Jasotako herentziak eta legatuak.
- c) Gastuen kontua, gutxienez honako gastu-kategoria hauek jasota:
- Langileen gastuak.
 - Ondasunak eta zerbitzuak (orokorrak) eskuratzeko gastuak.
 - Maileguren finantza-gastuak.
 - Beste administrazio-gastu batzuk.
 - Alderdiari dagozkion jardueren gastuak.
- d) Honako hauekin lotutako kapital-eragiketak:
- Finantza-erakundeen kredituak edo maileguak.
 - Inbertsioak.
 - Zordunak eta hartzekodunak.

Hiru. Urteko kontuetan jasoko dira balantzea, emaitzen kontua eta bi horiek azaltzen dituen memoria. Memoria horretan diru-laguntza publiko eta dohaintza pribatu guztiak jasoko dira, dirutan nahiz ondasun higiezin, higigarrien, zerbitzuen edo onura ekonomikoren bat eragiten duen bestelako transakzioen baten bitartez jasoak pertsona fisikoen eskutik; horietako bakoitzean, dohaintza-emailea identifikatu ahal izateko elementuak eta jasotako kapitalaren zenbatekoa zehaztu beharko dira.

Memoriarekin batera eranskin bat gehitu beharko da eta, bertan, zehaztu beharko dira alderdiak kreditu-erakundeekin dituen mota guzietako kredituen edo maileguren kontratu-baldintzak, zehatz-mehatz. Hala, erakunde emailea identifikatuko da, baita emandako zenbatekoa, interes-tasa eta kredituaren edo maileguaren amortizazio-epea eta kasuan kasuko jardura amaitzean oraindik kitatzeke dagoen zorra ere; era berean, itundutako baldintzak betetzean gertatu diren gorabehera guztiak adieraziko dira.

Lau. Dena den, Gorte Nagusietako parlamentuko taldeen, autonomia-erkidegoetako batzar legegileen, Euskal Lurralde Historikoetako Batzar Orokorraren edo toki-korporazioetako taldeen kontuak emateko orduan, kasuan kasuko erregelamenduetan edo legedia espezifikoa xedatutakoa hartuko da kontuan, eta lege honetako printzipio orokorrak errespetatu beharko dira kontuak emateko orduan.

Bost. Alderdi politikoen urteko kontu bateratuak estatura, autonomia-erkidegora eta probintziara hedatuko dira. Tokiko eta eskualdeko esparruari dagozkion kontuak, hala badagokio, probintziako kontuetan txertatuko dira. Alderdien federazio eta koalizioen urteko kontu bateratuetan federatutako eta elkartutako alderdienak gehituko dira.

Sei. Alderdi politiko guztiek urteko kontu bateratuak bidali beharko dizkiote Kontu Auzitegiari, dagokion ekitaldiaren hurrengo urteko ekainaren 30a baino lehen. Bertan, diru-sarrerak eta gastuak xedatu eta jasoko dira, behar bezala formalizatuta. Kontuok alderdiko ekonomia- eta finantza-kudeaketaz arduratzen den pertsonak aurkeztuko ditu.

Zazpi. Urteko kontuak aurkeztu ostean, Kontu Auzitegiak aurkezpen hori egin izanaren frogagiria helaraziko dio alderdi politikoari. Urteko kontuak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo hilabetean, Kontu Auzitegiak aurkezpena egin duten alderdien zerrenda igorriko dio Barne Arazoetako Ministerioko Alderdi Politikoen Erregistroari, bai eta Kontu Auzitegiaren Harremanetarako Batzorde Mistoaren presidenteari ere.

Zortzi. Kontu Auzitegiari bidali zaion egunetik gehienez ere hilabeteren barruan, alderdi politikoek balantzea, emaitzen kontua eta, bereziki, amortizatzeko dauden kredituen zenbatekoa argitaratu beharko dituzte beren webgunean. Gainera, honako hauek ere zehaztu beharko dira: erakunde emailea, emandako zenbatekoa, interes-tasa eta amortizazio-epea, jasotako diru-laguntzak eta 25.000 eurotik gorako

dohaintzak eta legatuak, dohaintza-emailearen edo legatu-hartzailearen erreferentzia eginez, betiere Kontu Auzitegiari buruzko maiatzaren 12ko 2/1982 Lege Organikoko 7.5 artikuluan zehaztutakoari kalterik egin gabe.

Bederatzi. Kontu Auzitegiak ekitaldi jakin bati dagokion ikuskapen-txostena igorri ostean, alderdi politikoek argitaratu egin beharko dute beren webgunean, gehienez ere 15 eguneko epean.

14 bis artikulua. *Ekonomia- eta finantza-kudeaketaren arduraduna.*

Bat. Alderdi politikoaren ekonomia- eta finantza-kudeaketaren arduraduna estatutuek zehaztutako moduan izendatuko da, egiaztatutako ezagutzak edo esparru ekonomikoan esperientzia profesionala duten eta zintzotasun-baldintza betetzen duten pertsonen artetik.

Bi. Honako hauek zintzotasun-baldintza ez dutela betetzen ulertuko da:

a) Epai irmoz, askatasunaz gabetzeko zigorra dutenek, harik eta kondena bete artean.

b) Epai irmoz kondenatuta daudenek, honako delitu hauek direla eta: faltasunaren aurkako delituak; askatasunaren aurkako delituak; ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren, langileen eskubideen, administrazio publikoaren, Konstituzioaren, Estatuako erakundeen, Justizia Administrazioaren eta Nazioarteko Erkidegoaren aurkako delituak; traizio eta bakearen edo Estatuaren independentziaren eta defentsa nazionalaren aurkako delituak; ordena publikoaren aurkako delituak eta, bereziki, terrorismoa, harik eta aurrekari penalak baliogabetu arte.

c) Sufragio pasiboko eskubidea ezgaitzea edo galtzea eragiten duen delitu batengatik prozesu penal batean daudenek, ahozko judizioa irekitzeko autoa eman denean.

d) Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legeari jarraiki ezgaituta daudenek, lehiaketaren kalifikazio-epaian zehaztu den ezgaitze-epea amaitzen ez den bitartean.

Administrazio publikoaren zerbitzura dauden funtzionario aktiboek eta bateraezintasun legalen batek eragindako pertsonak ezin izango dute alderdi politiko baten ekonomia- eta finantza-kudeaketaz arduratu.

Hiru. Ekonomia- eta finantza-kudeaketaren arduradunak urteko kontuetan islatutako jardueraren kontabilitate-erregulartasunari erantzun beharko dio. Erantzukizun hori ez dago lotuta ebazpenak hartu edo kontuetan islatutako egintzak egin dituztenekin.

Lau. Ekonomia- eta finantza-kudeaketaren arduradunari honako funtzio hauek dagozkie:

a) Urteko kontuak prestatzea eta Kontu Auzitegiari aurkeztea.

b) Autonomia-erkidegoko eta probintziako ekonomia- eta finantza-kudeaketaz arduratzen diren pertsonak gainbegiratzea, halakorik balego.

c) Hala badagokio, alderdiaren estatutuetan adierazten diren ordainketak agintzea eta gastuak baimentzea.

d) Estatutuek edo alderdiaren zuzendaritza-organo gorenak esleitzen dizkion gainerako funtzioak.

Bost. Beren funtzioak behar bezala betetzeko, alderdiaren ekonomia- eta finantza-kudeaketaren arduradun nazionalak argibide zehatzak eta jarduketa-irizpideak eman ahal izango dizkie lurralde maila desberdinetako arduradunei.»

Hamaika. 16. artikulua beste era batera geratuko da idatzita:

«16. artikulua. *Kanpoko kontrola.*

Bat. Kontu Auzitegiari berariaz dagokio alderdi politikoen ekonomia- eta finantza-jarduera kontrolatzea, betiere autonomia-erkidegoen kanpoko kontrol-organoei estatutuetan aurreikusita bezala esleitutako hauteskunde-prozesuetako ikuskapenarekin lotutako eskumenei kalterik egin gabe.

Bi. Kontu Auzitegiak kasu guztietan ikuskatuko ditu 3. artikuluan aurreikusitako diru-laguntza publikoren bat jasotzen duten alderdi guztien kontuak.

Gainerako alderdi politikoei dagokienez, Kontu Auzitegiak egokitzat jotzen dituen ikuskapen-jarduketak egingo ditu, jarduketa-planetan zehazten duenari jarraiki.

Hiru. Kontrol hori alderdi politikoen baliabide publiko eta pribatuei dagokien legezotasunaren ikuskapenera hedatuko da, baita egiten dituzten ekonomia- eta finantza-jardueren kontabilitate-erregulartasunera ere; gainera, beren ekonomia- eta finantza-jarduera haren naturarekin bat etorriz eska daitezkeen finantza-kudeaketaren printzipioetara egokitu beharko da.

Lau. Kontu Auzitegiak, 14. artikuluan aipatzen diren agiriak jaso eta sei hilabeteren barruan, txosten bat emango du agiri horiek arauzkoak ote diren eta aurreko zenbakian xedatutakoari egokitzen ote zaizkion argitzeko, edo, hala balegokio, zer arau-hauste edo arauz kontrako praktika atzeman dituen zehaztuko du berariaz.

Bost. Txosten hori Gorte Nagusietara igorriko du eta, gero, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.»

Hamabi. 16 bis artikulua berria erantsi da:

«16 bis artikulua. *Parlamentuaren kontrola.*

Kontu Auzitegiak ikuskapen-txostena onartu eta bi hilabeteren barruan, Kontu Auzitegiaren Harremanetarako Batzorde Mistoak eskatu ahal izango dio ager dadila Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan zehaztutako diru-laguntzak jasotzen dituen edozein alderdi politikoren ekonomia- eta finantza-kudeaketaz arduratzen den pertsonari, ikuskapen-organoak ikusi dituen arau-hauste edo jardun irregularrei buruzko informazioa eman dezan.

Agerraldi hori egin arren, egokitzat jotzen den kontabilitate-informazio guztia igorri beharko zaio Kontu Auzitegiari.»

Hamahiru. 17. artikulua beste era batera geratuko da idatzita:

«17. artikulua. *Arau-hausteak.*

Bat. Kontu Auzitegiak zehapenak ezarriko dizkio artikulua honetan tipifikatutako arau-hausteak egiten dituen alderdi politikoari, betiere delitu ez badira, eta alde batera utzi gabe antolamendu juridikoan oro har eta lege honetan bereziki ezarritakoaren ondorioz sortutako legezko erantzukizunak –edozein motatakoak direla ere–.

Bi. Arau-hauste oso astun izango dira honako hauek:

a) 4., 5., 7. eta 8. artikuluetan zehaztutako muga edo betekizunekin bat ez datozen dohaintzak edo ekarpenak onartzea. Halaxe hartu da, era berean, 4. hiru artikuluan adierazitako terminoetan hirugarrenek alderdiaren gastuak onartzea, bai eta 4. lau artikuluan jasotzen den debekua betetzen ez duten zorraren baldintzei buruzko akordioak ere.

b) Alderdi politikoek Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan aurreikusten diren hauteskunde-gastuak ehuneko hamarrean edo hortik gora gainditzea, betiere lege haren 134. artikuluan zehaztutakoari kalterik egin gabe.

c) Ondoz ondoko bi ekitalditan edo txandakako hiru ekitalditan zehar, urteko kontuak aurreikusitako epean aurkezteko betebeharra ez betetzea, 14. sei artikuluan aurreikusitako epearen barruan, edota kontuak osatu gabe edo akatsekin aurkeztea, Kontu Auzitegiari bere ikuskapen-eginkizuna betetzea galaraziz.

Hiru. Arau-hauste astun izango dira honako hauek:

- a) Merkataritza-jarduerak egitea, 6. artikuluan zehazten denari jarraiki.
- b) Alderdi politikoek Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan aurreikusten diren hauteskunde-gastuak ehuneko hirutik gora eta ehuneko hamarretik behera gainditzea, betiere lege haren 134. artikuluan zehaztutakoari kalterik egin gabe.
- c) Urteko kontuak aurkezteko betebeharra ez betetzea, kontuak osatu gabe aurkeztea edota akatsak izatea, Kontu Auzitegiari ikuskapen-eginkizuna edo lege honetan aurreikusitako kontabilitate-betebeharra galaraziz, betiere delitu ez den heinean.
- d) Kontuak ikuskatzeko sistematik edota barne-kontrolik ez izatea, 15. artikuluan zehaztuta bezala.

Lau. Arau-hauste arin izango dira honako hauek:

- a) 19. artikuluan zehazten den laguntzeko eginbeharrari dagozkion faltak.
- b) Alderdi politikoek Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan aurreikusten diren hauteskunde-gastuak ehuneko batetik gora eta ehuneko hirutik behera gainditzea, betiere lege haren 134. artikuluan zehaztutakoari kalterik egin gabe.

Bost. Arau-hauste oso astunak bost urtera preskribatuko dira, astunak hiru urtera, eta arinak bi urtera.

Arau-haustea egiten denetik hasiko dira epe horiek zenbatzen.»

Hamalau. 17 bis artikulua berria erantsi da:

«17 bis artikulua. *Zehapenak.*

Bat. Arau-hauste oso astunak egiteagatik, honako zehapen hauek ipiniko dira:

- a) 17. artikuluko bigarren zenbakiko a) letran aurreikusitako arau-hausteen kasuan, zehapenaren zenbatekoa legez baimendutako muga gainditzen duen kantitatearen bikoitza edo boskoitza izango da, hirugarrenak bere gain hartutako edo barkatutako kantitatea kontuan hartuta, hala badagokio.
- b) 17. artikuluko bigarren zenbakiko b) letran aurreikusitako arau-hausteen kasuan, egindako gastua gainditzen duen zenbatekoaren bikoitza edo boskoitzari dagokion diru-zigor proportzionala.
- c) 17. artikuluko bigarren zenbakiko c) letran aurreikusitako arau-hausteen kasuan, gutxienez berrogeita hamar mila euroko eta, gehienez, ehun mila euroko zehapena.

Aurreko a) eta b) letretan aurreikusitako zehapenak ez dira, inola ere, berrogeita hamar mila eurotik beherakoak izango.

Bi. Arau-hauste astunak egiteagatik, honako zehapen hauek ipiniko dira:

- a) 17. artikuluko hirugarren zenbakiko b) letran aurreikusitako arau-hausteen kasuan, hogeita bost mila eta berrogeita hamar mila euro arteko isuna, eta merkataritza-jarduerak egiteagatik lortutako etekin garbiaren ehuneko ehunari dagokion isuna.
- b) 17. artikuluko bigarren zenbakiko b) letran aurreikusitako arau-hausteen kasuan, gehiegizko gastuaren zenbatekoaren bikoitzetik boskoitzera bitarteko zehapena, eta hura ezingo da izan, inola ere, hogeita bost mila eurotik beherakoa.

c) Gainerako arau-hauste astunen kasuan, gutxienez hamar mila euroko eta gehienez berrogeita hamar mila euroko zehapena.

Hiru. Arau-hauste arinak egiteagatik, honako zehapen hauek ipiniko dira:

a) 17. artikuluko hirugarren zenbakiko a) letran aurreikusitako arau-hausteagatik, bost mila eta hamar mila euro arteko isuna.

b) 17. artikuluko hirugarren zenbakiko b) letran aurreikusitako arau-haustearen kasuan, egindako gastua gainditu duen zenbatekoaren bikoitzetik boskoitzera bitarteko zehapena, eta hura ezingo da izan, inola ere, bost mila eurotik beherakoa.

Lau. Kontu Auzitegiak behar bezala zainduko du hurrengo diru-laguntza igorri aurretik zehapenak betetzen direla eta, ordaindu ez badira, horien zenbatekoa kentzen dela.

Zehatutako alderdi politikoak diru-laguntzak jasotzeko eskubiderik izango ez balu, Kontu Auzitegiak eskatuko dio aipatutako alderdiari zehapenari dagokion zenbatekoa sar dezala Altxor Publikoan.

Alderdi politiko batek ezarritako zehapena ordaintzen ez badu, Kontu Auzitegiak Tributuen Administrazioaren Estatuko Agentziari jakinaraziko dio, hark epe betearazlean bil dezan.»

Hamabost. 18. artikulua beste era batera geratuko da idatzita:

«18. artikulua. *Zehapen-prozedura.*

Bat. Zehapen-prozedura Kontu Auzitegiaren osoko bilkuraren erabaki bidez abiaraziko da.

Kontu Auzitegiak egintzen berri izan bezain laster, osoko bilkurak alde aurreko informazioa emateko epe bat irekiko du, ustez araua hautsi duen alderdi politikoari entzuteko. Horren ostean, hala badagokio, zehapen-prozedura abiaraztea erabakiko du. Zehapen-prozedura abiaraztea ez da eragozpen izango ustez arau-haustea egin duen alderdi politikoaren ekonomia- eta finantza-kudeaketa ikuskatzeko eginkizuna gauzatzeko, ez eta Kontu Auzitegiaren funtzionamenduari buruzko apirilaren 5eko 7/1988 Legearen 30. artikuluan aurreikusitako hertsapen-isunak ezartzeko, hala balebakio. Zehapen-prozedura abiarazteak geldiarazi egingo du arau-hausteen preskripzioa.

Bi. Abiarazteko akordioak honako eduki hau izango du gutxienez:

a) Ustez arduraduna den alderdi politikoaren identifikazioa.

b) Prozedura abiaraztea eragin duten egintzak, balizko kalifikazio juridikoa eta egokitu dakizkiokeen zehapenak.

c) Prozeduraren instruktorea, haren errekusatze-araubidea zein den berariaz adierazita.

Prozedura abiarazteko akordioa instruktoreari helaraziko zaio, eta ustez araua hautsi duen alderdi politikoari jakinaraziko. Hark hamabost egun izango ditu egokitzen jotzen dituen alegazioak, dokumentuak edo informazioak aurkezteko, baita aldi frogagarri bat ireki dadila eskatzeko eta egokitzen jotzen dituen frogak-bitartekoak proposatzeko ere.

Prozedura abiarazteko akordioarekin batera, osoko bilkurak prozedura abiarazteko kontuan izan dituen dokumentuak eta frogak aurkeztuko dira.

Hiru. Frogaldi bat irekiko da honako kasu hauetan:

a) Aurreko zenbakian zehaztutako alegazioak izapidetzeko epean, alderdi interesdunak eskatzen duenean frogatzeko baliabide zehatzak proposatuta.

b) Interesdunak eskatu ez, baina instruktorearen ustez beharrezkoa denean zer gertatu den argitzeko eta arduradunak nor diren jakiteko. Kasu horretan,

instruktoreak bost eguneko epea emango die interesdunei, horiek egokitzen jotzen dituzten frogatzeko baliabideak proposa ditzaten.

Frogaldiak hogeita hamar egun baliodun iraungo du.

Frogen praktikorako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 81. artikuluan zehazten dena bete beharko da.

Lau. Frogaldia amaitu ostean, instruktoreak ebazpen-proposamena formulatuko du, honako hauek jasota:

1. Arau-hauste eta erantzukizunen bat izan dela uste badu:

a) Frogatu direla uste duen egintzak eta uste hori oinarritzeko baliatutako frogaren balorazioa.

b) Erantzuleztat jotzen duen alderdi politikoa eta uste hori oinarritzeko baliatutako frogaren balorazioa.

c) Egintzak zer arau-haustetan subsumituta dauden zehazteko arau tipifikatzaileak, eta iritzi hori justifikatzeko arrazoiak.

d) 17 bis artikuluko terminoetan bidezkoztat jotzen diren zehapenak, horretarako kontuan hartu dituen egoerak eta, hala badagokio, zehapenaren exekuzioa eteteko, exekuzio zatikatua egiteko edo hura aldatzeko proposamena, arrazoiak zehaztuta.

2. Arau-hausterik edo erantzukizunik ez dagoela ulertzen bada, absoluzio-proposamenari eutsiko dio.

Bost. Ebazpen-proposamena interesdunei jakinaraziko zaie. Gainera, hamabost egun izango dituzte alegazioak egiteko eta, horretarako, espedientea helaraziko zaie, hura kontsultatu eta bertan dauden dokumentuen kopia lor ditzaten.

Entzuteko izapideak amaitu ostean, instruktoreak Kontu Auzitegiaren osoko bilkurari helaraziko dio berehala ebazpen-proposamena, hark prozedura ebatz dezan. Harekin batera, espedientean dauden dokumentu, alegazio eta informazio guztiak helaraziko dizkio.

Sei. Behar bezala arrazoituz gero, instruktoreak alegazioetarako izapide horien epeak eta frogak aurkezteko epea luzatu ahal izango ditu, behin bakarrik eta ezarritako epe berean edo txikiagoan. Hori beharrezko kasuetan bakarrik gertatuko da, egin beharreko frogen kopurua eta izaera, egoera faktikoen konplexutasuna eta aztertutako alderdi juridikoak edo aintzat hartzeko moduko beste arrazoi batzuk direla-eta, egintzak eta erantzukizunak modu egokian zehazteko edo zehapen-prozeduran inplikaturik dauden defentsa eraginkorra bermatzeko beharrezkoa denean.

Zazpi. Instruktoreak frogaldia irekitzeari uko eginez gero edota aldeetako batek proposatutako frogarako baliabideren bat ukatuz gero, errekurtsioa jarri ahal izango da Kontu Auzitegiaren osoko bilkuraren aurrean, hiru eguneko epean, eta, erantzunik ezean, ezespene gisa hartuko da.

Zortzi. Kontu Auzitegiaren osoko bilkurak arrazoietan oinarritutako ebazpena emango du; bertan, alderdi interesdunak planteatutako auzi guztien inguruko erabakiak hartuko dira, bai eta prozeduratik eratorritako guztienak ere. Prozedura erabakitzen duen ebazpenak 4. zenbakian zehaztutako edukia izan beharko du.

Kontu Auzitegiaren osoko bilkurak ebazpen-proposamenean adierazitako egintzen zerrenda aldatu ahal izango du, ñabarduraren bat eginez edota besteren batzuk aintzat hartuz, baldin eta zehapen-prozeduran inplikaturik alderdi politikoaren mesedetan bada, betiere ebazpenean aldaketa faktikoa behar bezala arrazoituz.

Prozedura hasi eta sei hilabetera oraindik ez bada ebazpena jakinarazi, iraungita gertatuko da. Baina prozedura geldiarazi beharra gertatzen bada interesdunei egotz dakizkiekeen arrazoiak direla medio, epearen zenbaketa eten egingo da.

Bederatzi. Kontu Auzitegiak hartutako zehapen-ebazpenen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango da Auzitegi Gorenean. Baldin eta ebazpenaren bidez 17 bis artikuluan aurreikusitako zehapenetakoren bat ezarri bada, errekurtsua aurkeztuta gerarazi egingo da automatikoki Kontu Auzitegiak onartutako ebazpenaren betearazpena.»

Hamasei. Zazpigarren xedapen gehigarria honela geratuko da idatzita:

«Zazpigarren xedapen gehigarria. *Alderdi politikoei lotuta dauden edo horien mendekoak diren fundazioak eta entitateak.*

Bat. Fundazio bat alderdi politiko batekin lotuta dagoela edo haren mendekoa dela ulertuko da, baldin eta honako egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

a) Alderdi politikoaren edo harekin lotuta edota haren mendekoa den beste fundazio edo entitate baten gehiengoko ekarpen batekin sortzen denean (zuzenekoak zein zeharkakoak).

b) Beren fundazio-ondarea, 100eko 50etik gorako portzentaje batean, arestian adierazitako erakundeek emandako edo lagatako ondasunez zein eskubidez eratuta badago modu iraunkorrean.

c) Alderdi politikoak, zuzenean edo lotutako entitateen bitartez, patronatuko kide gehienak izendatu edo kargugabetu ditzakeenean.

d) Alderdi politikoak lotutako fundazio gisa izendatzen denean, Alderdi Politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoaren laugarren xedapen gehigarrian jasotzen denari jarraiki.

Entitate bat alderdi bati lotuta dagoela edo haren mendekoa dela ulertuko da, baldin eta alderdiak entitatearen gaineko kontrol zuzena edo zeharkakoa gauzatzen badu edo gauza badezake. Zehazki, kontrol hori gauzatzen dela ulertuko da baldin eta alderdi politikoak entitatearekin mota honetako harremanen bat badu:

a) Boto-eskubideen gehiengoa duenean.

b) Administrazio-organoko kide gehienak izendatzeko edo kargugabetzeko ahalmena duenean.

c) Hirugarrenekin egindako akordioei jarraiki, boto-eskubideen gehiengoa izan dezakeenean.

d) Bere botoekin administrazio-organoko kide gehienak izendatu dituzte. Zehazki, inguruabar hori gertatzen dela ulertuko da, baldin eta mendeko sozietateko administrazio-organoko kide gehienak alderdi politikoko edo hari lotutako edo haren mendeko beste entitate baten zuzendaritza-organogorenako kideak badira.

e) Alderdi politikoak lotutako entitate gisa izendatzen duenean, Alderdi Politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoaren laugarren xedapen gehigarrian jasotzen denari jarraiki.

Zenbaki honetan jasotzen denaren ondorioetarako, alderdi politikoaren boto-eskubideak ez ezik beste batzuenak ere hartuko dira kontuan: batetik, alderdi politikoarekin lotutako beste fundazio edo entitate batzuenak edota mendeko fundazioen edo entitateen bitartez bereganatzen direnak, eta, bestetik, norbere izenean baina alderdi politikoaren edo horiekin lotutako edo mendeko beste fundazio edo entitate batzuen kontura jarduten dutenenak. Pertsona batek alderdi politikoaren kontura jarduten duela ulertuko da, administrazio-organon duen partaidetza alderdi politikoak egindako izendapen batetik eratorri bada edo alderdi politikoak izendatu duen kargu baten titulartasunetik eratorri bada.

Bi. Alderdi politikoekin lotura duten edo horien mendekoak diren fundazioek eta entitateek jasotzen dituzten ekarpenak lege honetan aurreikusita dauden ikuskapen-eta kontrol-mekanismoen pean egongo dira, bai eta zehapen-araubidearen pean ere (V. eta VI. tituluetan daude aurreikusita, hurrenez hurren), aplikatzekoak zaizkien

berezko araueri kalterik egin gabe. Kontu Auzitegiak gauzatutako kontrola ekarpen horien kontabilitate-erregulartasunera ere hedatuko da, bai eta diru-laguntza publikoen kargura finantzatutako programa eta jardueretatik eratorritako gastuetara ere.

Hiru. Alderdi politikoekin lotura duten edo horien mendekoak diren fundazioen eta entitateen jarduera finantzatzeko baliabideak kasu bakoitzean aplikatzekoa den legerian aurreikusitakoak izango dira.

Lau. Dohaintzak, berriz, lege honen II. tituluaren bigarren kapituluan aurreikusitako mugen eta baldintzen pean egongo dira eta, beraz, ez da aplikatuko 5.bat artikuluko b) eta c) letretan aurreikusitakoa.

Pertsona juridiko batek alderdi politiko bati dohaintza egiteko, ezinbestekoa izango da, beti, haren organo edo ordezkari eskudunak horretarakoxe erabakia onartzea, forma aldetik dagozkion baldintza guztiak beteta; gainera, jasota utzi beharko da, berariaz, lege honek ezarritako baldintzak bete direla. Dohaintza horiek diruzkoak eta 120.000 eurotik gorakoak direnean, dokumentu publiko bidez egin beharko dira.

Xedapen honetan araututako fundazio eta entitate lotetsiek ezingo dute organismo, entitate eta enpresa publikoen dohaintzarik onartu, ezta jaso ere –ez zuzenean, ez zeharka–.

Bost. Xedapen gehigarri honen ondorioetarako, ez dira dohaintzat jotako pertsona fisiko edo juridiko batek entregatzen dituen diru-zenbatekoak edo ondasunak, baldin fundazioaren edo entitatearen jarduera edo proiektu jakin bat finantzatzeko ematen badira, eta dena delako jarduera edo proiektu hori bi erakundeen sozietate- edo estatutu-xedeari dagozkion jardueretatik sortutako interes erkide pertsonal baten ondorioz gauzatzen bada.

Zenbaki honetan aurreikusitakoari jarraiki egindako entregak dokumentu publiko bidez formalizatu beharko dira uneoro; gainera, Kontu Auzitegiari jakinarazi beharko zaizkio horiek onartu eta publiko egiten direnetik hiru hilabeteko epean, ahal izanez gero, lotutako fundazioaren edo entitatearen webgunearen bitartez.

Sei. Xedapen gehigarri honetan araututako fundazioek eta entitateek kontuak aurkeztu eta onartu beharko dituzte, indarrean den legerian ezarritako moduan, bai eta urteko kontuen ikuskapena eginarazi ere. Gainera, Kontu Auzitegiari bidali beharko diote dokumentazio guztia.

Erakunde horrek bigarren zenbakian aipatzen den ikuskapen-txostena emandakoan, fundazioek eta entitateek balantzea eta emaitzen kontua argitaratu beharko dituzte, bai eta kontu-ikuskapenaren txosteneko ondorioak ere; ahal dela webgunearen bidez argitaratu beharko dituzte, herritarrek ordaindu gabe eta erraz eskuratzeko moduan.

Zazpi. Xedapen gehigarri honetan arautzen diren fundazioek eta entitateek, urtero-urtero, jasotako dohaintza eta ekarpen guztien berri eman beharko diete Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioari; horretarako, ministro-agindu bat onartuko da eman beharreko informazioaren edukia, irismena eta egitura zehazteko. Gainera, pertsona juridikoek egindako dohaintza guztien berri eman behar zaio Kontu Auzitegiari, onartu eta hiru hilabeteren barruan.»

Hamazazpi. Hamahirugarren xedapen gehigarria erantsi zaio:

«Hamahirugarren xedapen gehigarria. *Alderdi politikoaren kontratazio-araubidea.*

1. Alderdi politikoaren kontratazio-prozedurak honako printzipio hauetan oinarrituko dira: publizitatea, konkurrentzia, gardentasuna, konfidentzialtasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, guztia ere borondatearen autonomiarekiko errespetuari eta, hala dagokionean, konfidentzialtasunari kalterik egin gabe.

2. Alderdi politikoak barneko hainbat jarraibide onartu beharko ditu kontratazioaren arloan; horiek aurreko zenbakian aurreikusitakora egokituko dira eta, onartu aurretik, aholkularitza juridikoaz arduratzen den organoak horiei buruzko

txostena egin beharko du. Jarraibide horiek alderdi politikoaren webgunean argitaratu beharko dira.»

Hemezortzi. Hamalau garren xedapen gehigarria erantsi zaio:

«Hamalau garren xedapen gehigarria. *Lege arruntaren maila.*

Lege arruntaren izaera dute III. tituluak eta lehen, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren xedapen gehigarriek.»

Hemeretzi. Hamabosgarren xedapen gehigarria erantsi zaio:

«Hamabosgarren xedapen gehigarria. *Alderdi politikoetara afiliatu gabe dauden pertsonen ekarpenak.*

Afiliatu gabe dauden baina hautesleen edo administrazio publiko guztietako edo Estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko sektore publikoko goi-kargudun baldintza duten pertsonak alderdi politikoei egindako ekarpenak afiliatuen ekarpen gisa hartuko dira, ondorio guztietarako, ekarpen-egileek hala adierazten dutenean.»

Hogei. Hamaseigarren xedapen gehigarria erantsi zaio:

«Hamaseigarren xedapen gehigarria. *Hauteskunde-gastuaren gehieneko zifra jakinaraztea.*

Kontu Auzitegiak, deitutako hauteskunde-prozesua ikuskatzeko eskumena duenean, dagokion moduan jakinaraziko die Diputatuen Kongresuan ordezkaritza duten eta aurkezten diren alderdi politiko guztiei dagokien hauteskunde-gastuaren banakako zifra maximoa, hautagaitzen jakinarazpen irmoa egin eta berehala. Gainera, alderdi horien hauteskunde-gastuaren gehieneko zifren zerrenda igorriko du eskumena duen hauteskunde-batzordera, horiek erreferentzia izan daitezen, hala badagokio, legean aurreikusitako zehapenak kalkulatzeko.»

Hogeita bat. Azken xedapenetatik bigarrena honela geratuko da idatzita:

«Azken xedapenetatik bigarrena. *Ordezko araubidea.*

Lege organiko honek diru-laguntzen arloan arautzen ez duen guztirako, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitakoa aplikatuko da.

Lege honetan araututako zehapen-prozedurek, berariazko araurik ezean, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotako prozeduren arau orokorrak izango dituzte ordezko eta osagarri.»

Bigarren artikulua. *Alderdi politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoa aldatzea.*

Alderdi politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoa aldatu egin da eta honela geratuko da idatzita:

Bat. 1. artikulua 1. zenbakia aldatu egin da, eta honela geratuko da idatzita:

«1. Europar Batasuneko herritarrek modu librean sortu ahal izango dituzte alderdi politikoak, Konstituzioan eta lege organiko honetan xedatutakoari jarraiki.»

Bi. 3. artikulua honela geratuko da idatzita:

«3. artikulua. *Eraketa, estatutuak eta nortasun juridikoa.*

1. Eraketa-akordioa sortze-agirien bitartez egin beharko da, eta dokumentu publikoan gauzatu beharko da. Hark sustatzaileen identifikazio pertsonala jaso beharko du, baita eraiki nahi den alderdiaren izena, behin-behineko zuzendaritza-organoetako kideak, helbidea eta eraiki nahi den alderdia arautuko duten estatutuak ere.

Alderdien izenean ezin izango dira nortasunari buruzko akatsa edo nahasketa eragin dezaketen terminoak edo adierazpenak txertatu, ez eta pertsonen oinarritzko eskubideen edo legeen aurkakoak ere. Gainera, ezin izango dute honako kasu hauetan jasota dauden alderdien izen bera edo antzekoa izan, ezta fonetikoki ere: erregistroan aurretiaz inskribatuta dagoen beste alderdiren batena, hura osatzen duen alderdi batena (fusioen kasuan), inskribatutako alderdi batena (zuzenbidez balioztatutako frogaren baten bidez egiaztatuta dagoenean) edo ilegaltzat jotzen den, disolbatu egin den edo ebazpen judizial bidez eten den alderdiren batena. Era berean, ezin izango dira pertsona fisikoen identifikazioarekin edo lehendik existitzen diren entitateen edo erregistratutako marken izendapenarekin bat datozen izenak jarri.

2. Alderdi politikoaren estatutuek honako eduki hau izango dute, gutxienez:

- a) Izena eta siglak.
- b) Sinboloa, deskribapenarekin eta irudikapen grafikoarekin.
- c) Helbide osoa: udalerrria, probintzia, kalea eta posta-kodea.
- d) Webgunea eta helbide elektronikoa.
- e) Jarduketa-eremua: estatua, autonomia-erkidegoa, probintzia edo udalerrria.
- f) Helburuak.
- g) Afiliatuak onartzeko eta horiei baja emateko betekizunak eta modalitateak.
- h) Afiliatuen eskubideak eta betebeharrak, eta horien diziplina-araubidea, 8. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.
 - i) Gobernu-organoak eta ordezkaritza, haien osaera, berritzeko epeak (gehienez ere lau urtez behin), eskumenak eta eskuduntzak, organo kidetuen saioetarako deialdiak egiteko eskumena duten organoak, deialdietarako gutxieneko epea, iraupena, gai-ordena prestatzeko modua (bertan txertatuko diren puntuak proposatzeko behar den kide-kopurua barne), deliberamendu-arauak eta akordioak hartzeko beharrezko gehiengoa; azken hori bertaratuen gehiengo sinplea izango da oro har, izan eskubide osoko kideak, izan konpromisarioak.
 - j) Zuzendaritza-organoak aukeratzeko prozedura, zuzenean nahiz ordezkaritza bidez, baita aukeratutako buruzagien kontrol demokratikorako prozedurak ere. Aukeratzeko prozedurak afiliatu guztiek isilpeko sufragio libre bidez parte har dezaketela bermatuko du.
 - k) Alderdi politikoaren zein kargu edo organori dagokion ordezkaritza legala eta alderdi politikoaren ekonomia- eta finantza-kudeaketaren arduraduna zehaztea, bai eta haiek izendatzeko prozedura ere.
 - l) Administrazio- eta kontabilitate-araubidea, Kontabilitate Liburu eta guzti.
 - m) Dokumentazio-araubidea, Afiliatuen fitxategia eta Akten Liburua jasota.
 - n) Alderdi politikoak sortze-ondararik baduen ala ez adierazi behar da, baita baliabide ekonomikoen jatorria eta kontuak emateko prozedura ere.
 - o) Urteko kontuak onartzeko prozedura eta organo eskuduna; adierazi beharko da kontuok urtero bidali behar zaizkiola Kontu Auzitegiari, legez ezarritako epean.
 - p) Alderdi politikoa desegiteko arrazoiak eta, hala badagokio, ondarearen norakoa.
 - q) Alderdiko organoen akordioei eta erabakiei loturik, afiliatuek erreklamazioak egiteko prozedura.
 - r) Afiliatuen eskubideak defendatzeaz eta bermatzeaz arduratzen den kargua edo organoa.

s) Afiliatuen arau-hauste eta zehapenen araubidea, eta horiek ezartzeko prozedura. Hura modu kontraesankorrean bideratu beharko da, eta afiliatuak eskubidea izango du zer egintzak abiarazi duen informazioa izateko, zehapenak ezarri aurretik entzuna izateko eta zehapen-akordio hori arrazoitua izateko. Dena den, kautela-neurri moduan, afiliazioa berehala etengo zaie ustelkeriarekin lotutako delitu batengatik ahozko epaiketa ireki eta prozesu penal batean dauden afiliatuei, eta, era berean, alderditik kanporatzeko zehapena ezarriko zaie delitu horietakoren batengatik kondenatuta daudenei.

t) Lege honetan edo beste batean eskatutako beste edozein aipamen.

3. Alderdiek estatutuekin edo gobernu-organoen osaera eta ordekaritzarekin lotutako aldaketa oro jakinarazi beharko diote Erregistroari, gehienez ere aldaketa hori egin eta hiru hilabeteko epean eta, betiere, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoaren barruan. Gainera, aldaketok webgunean argitaratu beharko ditu.

4. Alderdi politikoek nortasun juridikoa izateko, Barne Arazoetako Ministerioan xede horretarako egongo den Alderdi Politikoen Erregistroan izena eman behar dute. Bertan, sustatzaileek sinatutako sortze-agiria aurkeztu beharko dute aurretiaz, baita Lege Organiko honetan aurreikusitako betekizunak egiaztatzen dituen dokumentuak ere.»

Hiru. 4. artikuluko 4 zenbakia honela geratuko da:

«4. Erregistratu ostean, bertan geratuko da alderdi politikoa izena emanda, denbora-mugarik gabe, harik eta eten edo desegin dela jaso arte, honako modu hauetakoren batez: alderdiak berak estatutuko aurreikuspenei jarraiki hartu duen erabakiaren jakinarazpen bidez, judizialki ilegaltzat hartu delako eta disolbatu edo eten egin delako, edota judizialki iraungita dagoela ulertzen delako, 12 bis artikuluan aurreikusitakoari jarraiki. Aurreko guztia 10.6 artikuluan xedatutakoa betez egin beharko da, eta, irismenari eta eteteari dagokionez, 11.8 artikuluan zehaztutakoari jarraitu beharko zaio.»

Lau. 6. artikulua aldatu egin da:

«Alderdi politikoek printzipio demokratikoak bete beharko dituzte, bai eta Konstituzioan eta legeetan xedatutakoa ere, funtzionamenduari eta jarduerari dagokionez. Alderdi politikoek antolakuntza-askatasuna izango dute egitura, antolakuntza eta funtzionamendua zehazteko, eta antolamendu juridikoan zehaztutako mugak bakarrik izango dituzte.»

Bost. 7. artikuluko 1. zenbakia aldatu egin da:

«1. Alderdi politikoek barne-egitura eta funtzionamendua demokratikoak izango dira, eta afiliatuak zuzenean parte hartzeko formulak zehaztuko dira estatutuetan jasotako terminoei jarraiki, batez ere alderdiaren gobernu-organoren auzeratzeko prozesuetan.»

Sei. 8. artikulua aldatu egin da:

«8. artikulua. *Afiliatuen eskubideak eta eginbeharrak.*

1. Alderdi politikoetako afiliatuak pertsona fisikoak izan behar dute, adinez nagusiak eta jarduteko gaitasun mugaturik gabeak.

2. Alderdi politikoek estatutuekin hainbat afiliazio-modalitate zehaztu ahal izango dituzte, alderdi politikoarekiko lotura mailaren arabera. Modalitate bereko afiliatuak eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte.

3. Alderdi politikoek idatziz jasoko dute kideen afiliazioa, dagokion fitxategian; fitxategi hori Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoari jarraiki arautuko da.

4. Estatutuetan afiliatuen eskubide-zerrenda xehatua jasoko da eta, alderdi politikoarekiko lotura gehien dutenei dagokienez, honako hauek ere bilduko dira:

a) Alderdiaren eta gobernu- eta ordezkaritza-organoen jardueretan parte hartzeko, boto-eskubidea egikaritzeko, eta Batzar Nagusira joateko eskubidea, betiere estatutuei jarraiki.

b) Alderdiaren karguetarako hautesle eta hautagarri izateko eskubidea.

c) Zuzendaritza- eta administrazio-organoen osaerari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, bai eta zuzendaritza-organoei hartutako erabakiei, gauzatutako jardueri eta egoera ekonomikoari buruzko informazioa jasotzekoa ere.

d) Legearen edota estatutuen aurkako alderdi-organoei buruzko akordioak aurkatzeko eskubidea.

e) Afiliatuen eskubideak defendatzeaz arduratzen den organora jotzeko eskubidea.

Gainerako afiliatuek estatuetan jasotako eskubideak izango dituzte.

5. Alderdi politiko baten afiliatuek estatutuetako xedapenetan jasotzen diren betekizunak bete beharko dituzte, honako hauek batez ere:

a) Alderdiaren xedeak partekatzea eta horiek lortzen laguntzea.

b) Estatutuetan eta legeetan xedatutakoa errespetatzea.

c) Alderdiaren zuzendaritza-organoei onartutako erabakiak ontzat hartzea eta betetzea.

d) Estatutuei jarraiki eta kasuan kasuko afiliazio-modalitatearen arabera, bakoitzari dagozkion kuotak eta bestelako ekarpenak ordaintzea.»

Zazpi. 9. artikuluko 3. zenbakia aldatu egin da:

«3. Alderdi politiko batek aurreko zenbakian zehazten diren egoerak betetzen dituela ulertuko da, baldin eta honako jarrera hauetakoren bat errepikatzen edo pilatzen bada:

a) Terrorismoari berriazko edo isileko babes politikoa ematen bazaio, xede politikoak lortzeko ekintza terroristak legitimatuz, bide baketsuak eta demokratikoak alde batera utzita, edota haren esanahia errugabetuz edo murriztuz eta funtsezko eskubideak urratuz.

b) Indarkeria-ekintza terroristen jarduerarekin lotutako konfrontazio zibilaren kultura sustatzen duten programekin eta jarduketekin laguntzen bada, edo haren aurka agertzen direnak beldurtzeko, etsitzeko, neutralizatzeko edo sozialki isolatzeko helburua duten jarduketak egiten badira, egunero indarkerian, beldurrean, bazterkerian edo askatasunen oinarrizko gabetzeetan bizi araziz, eta, bereziki, gai publikoetan modu librean eta demokratikoan hitz egiteko eta parte hartzeko askatasuna gabetuz.

c) Zuzendaritza-organoei edo hauteskunde-zerrendetan terrorismo-delituengatik kondenatutako pertsonak txertatzen badira, nola eta xede eta bitarteko terroristei publikoki uko egin ez dieten, edota afiliatuen kopuru handi bat talde terrorista edo talde bortitzekin lotutako erakunde edo entitateetan afiliatuta badaude, horien aurkako diziplinazko neurriak hartu direnean salbu, kanporatzeko helburuarekin, hain zuzen.

d) Alderdiaren jarduerarako erreminta gisa, terrorismoa edo indarkeria irudikatzen edo identifikatzen duten sinboloak, mezuak edo elementuak erabiltzen badira alderdiarenekin batera, edo haiek ordeztuz.

e) Antolamenduak eta, bereziki, hauteskunde-legediak alderdi politikoei eskaintzen dizkien eskubideak eta prerrogatibak terroristei edo horiekin lankidetzan jarduten dutenei lagatzen bazaizkie.

f) Erakunde terrorista edo bortitz bati edota terrorismoa edo terroristak babesten dituen talde bati jarraiki jarduten duten entitateekin zein taldeekin modu sistematikoan lankidetzan jarduten badute.

g) Gobernatzen diharduten erakundeetatik aurreko lerrokadan aipatutako entitateei laguntza ematen bazaie, administrazio- eta ekonomia-neurriekin edota beste mota batekoekin.

h) Ekintza terroristak edo bortitzak, edo horiek gauzatu dituzten edo horietan lagundu duten pertsonak saritzeko, omentzeko edo nabarmentzeko helburua duten jarduerak sustatzen badira, horiei estaldura ematen bazaie edo horietan parte hartzen bada.

i) Terrorismoarekin edo indarkeriarekin lotutako desordena, larderia edo indarkeria sozialean oinarritutako ekintzei estaldura ematen bazaie.»

Zortzi. 9 bis artikulua berria gehitu da:

«9 bis artikulua. *Prebentzioa eta ikuskapena.*

Alderdi politikoek antolamendu juridikoaren aurkako jarrerak prebenitzeko eta ikuskapena egiteko sistema bat onartu beharko dute barne-arauetan, Zigor Kodearen 31 bis artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.»

Bederatzi. 10. artikuluko 1. zenbakia aldatu egin da:

«10. artikulua. *Desegitea edo etetea judiziala.*

1. Alderdi politiko bat desegin edo, hala badagokio, eten egingo da, batetik, estatuetan aurreikusitako prozedurak eta arrazoiak direla eta, alderdia osatzen duten kideek hala erabaki dutelako, eta, bestetik, eskumena duen agintari judizialaren erabakiz, 2 eta 3. zenbakietan aurreikusitako terminoetan.

Alderdi Politikoen Erregistroan oharra jaso ostean desegingo da alderdi politikoa, alderdiari berari edo desegitea dekretatu duen organo judizialari jakinarazi ostean.»

Hamar. 12 bis artikulua berria erantsi da:

«12 bis artikulua. *Alderdi politiko bat azkentzeko deklarazio judiziala.*

1. Alderdi Politikoen Erregistroaren ekimen bidez, ofizioz edo interesdunek hala eskatuta, organo eskudunak alderdi politiko bat azkentzeari dagokion deklarazio judiziala eskatuko dio administrazioarekiko auzien jurisdikzioari, baldin eta alderdia honako egoera hauetakoren batean badago:

a) Ez baditu egokitu estatutuak aplikagarriak diren legeetara, kasu bakoitzean aurreikusitako epeetan.

b) Ez badu deitu gobernu- eta ordezkartza-organok berritzeko organo eskuduna, 3.2 artikuluko i) letran aurreikusitako epearen bikoitza igaro ostean.

c) Ez baditu aurkeztu urteko kontuak ondoz ondoko 3 ekitalditan edo txandakako 4 ekitalditan zehar, betiere kontuak ez aurkezteak eragin ditzakeen erantzukizunei kalterik egin gabe.

2. Aurretiaz, Alderdien Erregistroak arestian deskribatutako egoeraren bat betetzen ez duen alderdi politikoari jakinarazi beharko dio, 6 hilabeteko epean, egiazta eta frogaraz ditzala honakoak: estatutuak legera egokitu dituela, gobernu- eta ordezkartza-organok berriro dituela, edota aurkezteke dituen ekitaldi guztietako urteko kontuak aurkeztu dituela, edo, hala badagokio, aurreko guztia. Epe hori igaro ostean alderdi politikoak oraindik ez badu arestian aipatutakoa egin, Alderdien Erregistroak aurreko zenbakian aurreikusitako prozedura abiaraziko du.

3. Alderdi politiko bat azkentzeko deklarazio judizialerako, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 127. quinquies artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

4. Azkentzeari buruzko deklarazio judizialak Alderdi Politikoen Erregistroan jasotzen denetik aurrera izango ditu ondorioak, organo judizialak dagokion jakinarazpena egin ostean.»

Hamaika. 13. artikulua 1. zenbakia aldatu egin da, eta 3. zenbakia gehitu zaio. Honela geratuko dira idatzita:

«1. Alderdi politikoak finantzatzeko, alderdi politikoaren finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan aurreikusitakoa hartuko da kontuan.»

«3. Alderdi Politikoen Erregistroan inskribatutako alderdiek behar bezala formalizatuta igorri beharko dizkiote urteko kontu bateratuak Kontu Auzitegiari, alderdi politikoaren finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan zehaztutako epean.»

Hamabi. Laugarren xedapen gehigarria erantsi zaio:

«Laugarren xedapen gehigarria. *Alderdi politikoei lotuta dauden edo horien mendekoak diren fundazioak eta entitateak.*

1. Alderdi politikoekin lotuta dauden edo horien mendekoak diren fundazioek eta entitateek, alderdi politikoaren finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan aurreikusitako irizpideekin bat etorriz, Alderdi Politikoen Erregistroan inskribatu beharko dute alderdietako ordezkarien eta euren ordezkarien ekimen bateratu bidez. Inskribatzeko orduan, fundazioaren eta entitatearen izena jakinaraziko da, eta, arloa kontuan hartuta, zer erregistroan dauden inskribatuta ere bai.

Alderdi politikoekin lotuta dauden edo horien mendekoak diren fundazioek eta entitateek ondorio horietarako sortuko den Erregistroko atal zehatzean inskribatu beharko dute.

2. Alderdi politikoekin lotuta dauden edo horien mendekoak diren baina Alderdi Politikoen Erregistroan inskribatu gabe dauden fundazioek eta entitateek ezin izango dute alderdi politikoekin lotuta dauden edo horien mendekoak diren fundazioei eta entitateei xedaturiko diru-laguntzen deialdi publikoetan parte hartu.

3. Alderdien Erregistroan inskribatu beharko dute, berdin du arloari edo lurralde-esparruari jarraiki dagokien fundazioen edo entitateen Erregistroan ere inskribatuta dauden.»

Hamahiru. Xedapen indargabetzaile bakarra honela geratuko da idatzita:

«Lege Organiko honen aurkako arau guztiak indargabetu dira, alderdi politikoei buruzko abenduaren 4ko 54/1978 Legea eta indarrean dauden ekainaren 14ko 21/1976 Legearen artikulua bereziki.»

Hirugarren artikulua. *Kontu Auzitegiari buruzko maiatzaren 12ko 2/1982 Lege Organikoa aldatzea.*

Bat. Lehen artikuluko lehen zenbakian lerrokada bat gehitu da, eta honela geratuko da idatzita:

«Era berean, Kontu Auzitegiari dagokio Barne Arazoetako Ministerioaren Alderdi Politikoen Erregistroan inskribatuta dauden alderdi politikoaren ekonomia- eta finantza-jardueraren ikuskeraren egitea, baita horiekin lotuta dauden edo horien mendekoak diren fundazioena eta entitateena ere.»

Bi. Hirugarren artikulua beste era batera geratuko da idatzita:

«Hirugarren artikulua.

Bat. Kontu Auzitegiak haren barneko araubideari eta gobernuari nahiz bere menpe dituen langile guztiei dagokien guztiaren gaineko eskumena izango du, eta funtzionamenduari eta antolakuntzari buruzko erregelamenduak eman ahal izango ditu, baita langileei buruzko estatutuari eta lege honen eta funtzionamendu-antolakamenduaren esparruko zerbitzuei dagokienez ere.

Bi. Era berean, funtzionamendu-legea garatzeko, aplikatzeko eta exekutatzeko erregelamenduak eman ahal izango ditu; horrela, bigarren mailako araubideak eta araubide osagarriak ezarriko ditu bere zerbitzura duen pertsonalaren estatutuari dagokionez.

Hiru. Erregelamenduak osoko bilkuran onartu beharko dira eta, horren ostean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, presidentek onetsi ostean.»

Hiru. Laugarren artikuluan hirugarren zenbakia erantsi da, eta honela geratuko da idatzita:

«Hiru. Kontu Auzitegiari dagokio Barne Arazoetako Ministerioaren Alderdi Politikoen Erregistroan inskribatuta dauden alderdi politikoen ekonomia- eta finantza-jardueraren ikuskapena egitea, baita horiekin lotuta dauden edo horien mendekoak diren fundazioena eta entitateena ere.

Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan aurreikusten diren egoeretan, fundazio edo entitate bat alderdi politiko batekin lotuta dagoela edo haren mendekoa dela ulertuko da.»

Lau. Zazpigarren artikulua beste era batera geratuko da idatzita:

«Bat. Kontu Auzitegiak pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatu guztien lankidetzara eskatu ahal izango du. Pertsonok guztiok auzitegiaren funtzio ikuskatzaileekin eta jurisdikzionalekin lotutako datu, egoera, dokumentu, aurrekari edo txosten guztiak eskaini beharko dizkiote.

Estatuak eta Kontu Auzitegiaren kontrolpean dauden sektore publikoko gainerako entitateek eskatutako ekonomia eta finantza arloetako informazioa helarazi beharko diote, kontrolerako prozedura eta prozedura jurisdikzionalak bideratu ahal izateko. Kontu Auzitegiak lankidetzara-hitzarmenak egin ahal izango ditu Estatuko Administrazio Orokorrekin eta gainerako organo, erakunde eta entitateekin, azken horiek duten informazioa eskuratu ahal izateko, betiere hornitu beharreko informazioa erregulatzen duen araudi bereziarekin bat etorri eta haren funtzio ikuskatzailea eta jurisdikzionala bizkortzeko eta errazteko helburuarekin.

Bi. Eskaera dagokion Ministerioaren, autonomia-erkidegoaren edo tokiko korporazioaren bitartez egingo da.

Hiru. Auzitegiaren eskakizunak bete ezean, Funtzionamenduari buruzko Legean zehaztutako hertsapen-isunak aplikatu ahal izango dira. Errekerimenduak inbertsioen edo gastu publikoen ziurtagiriak erreklamatzeko badira eta ez badira aurkezten eskatutako epean, delako diru-laguntza itzultzeko espedientea abiaraziko da, ofizioz.

Kontu Auzitegiak Gorte Nagusiei jakinaraziko die ez dutela jaso ziurtagiriok aurkezteko betebeharra dutenen lankidetzarik.

Lau. Era berean, Auzitegiak titulazio egokia duten adituei mandatua eman ahal izango die sektore publikoa osatzen duten entitateen dokumentazioa, liburuak, metalikoa, balioak, ondasunak eta existentziak ikuskatzeko, berrikusteko eta egiaztatzeko, laugarren eta bigarren artikuluetan adierazten diren egoeretan eta, oro har, horien kontuetan islatutako eragiketen errealitatea egiaztatzeko eta dagozkion txostenak igortzeko.

Bost. Kreditu-erakundeek Kontu Auzitegiarekin batera lan egin beharko dute, eta hark eskatutako dokumentazioa eta informazioa helarazi beharko dute. Hain justu, alderdi politikoen funtsei eta horiekin lotuta dauden edo horien mendekoak diren fundazioen eta entitateen funtsei dagozkien kontuak identifikatu beharko dituzte, baita haien kargura jarritako eragiketak egiteko baimena duten pertsonak ere.

Afiliazio-kuotak ordaintzeko bestetarako ez diren kontuen kasuan, eskatutako datetan edo garaietan egindako saldoei eta mugimenduei buruzko datuak helarazi beharko zaizkio Kontu Auzitegiari. Kontu horiei dagokienez, ez da, inola ere, alderdi politikoetan afiliatutako pertsona fisikoak identifikatzea ahalbidetzen duen daturik eskainiko.

Dohaintzak jasotzera xedaturik dauden kreditu-erakundeetan irekitako kontuen eta beste ekarpen batzuk jasotzen diren kontuen kasuan, aurreko lerrokadan adierazitako informazioaz gain, ekarpenak egin dituztenen nortasunari buruzko informazioa helaraziko da, baldin eta, azken kasu horretan, urte natural batean egindako ekarpenen kopurua 3.000 eurotik gorakoa bada.

Informazio horixe bera helarazi beharko da, halaber, alderdi politikoekin lotuta dauden edo horien mendekoak diren entitateen eta fundazioen kasuan.»

Bost. Bederatzigarren artikuluko lehenengo zenbakia aldatu egin da.

«Bat. Kontu Auzitegiaren ikuskapen-funtzioaren bitartez, sektore publikoko ekonomia eta finantza arloetako jarduerak legezkotasun-, eraginkortasun-, ekonomia- eta gardentasun-printzipioak betetzen dituela bermatuko da, baita ingurumen-jasangarritasuna eta genero-berdintasuna ere.»

Sei. Hogeita batgarren artikulua beste era batera geratuko da idatzita:

«Hogeita batgarren artikulua.

Bat. Osoko bilkurako epaimahaia hamabi kontseilarik eta fiskalak osatuko dute; kontseilari horietako bat presidentea izango da.

Bi. Osoko bilkura modu egokian eratzeko kide guztien bi herenek osaturiko quoruma beharko da, eta erabakiak kideen gehiengo bidez hartuko dira.

Hiru. Osoko Bilkurari dagokio:

- a) Ikuskapen-eginkizuna gauzatzea.
- b) Auzitegiaren eskumenei eta eskudantziei eragiten dieten arazoak planteatzea.
- c) Auzitegiko organoek emandako administrazio-ebazpenen kontrako gora jotzeko errekurtsoen berri izatea.
- d) Kontu Auzitegiaren erregelamenduak onartzea eta aldatzea.
- e) Kontu Auzitegiaren funtzionamenduari buruzko Legean zehazten diren gainerako funtzioak.»

Lehenengo xedapen gehigarria. *Diru-laguntzen zenbatekoa egokitzea.*

Urtero egokituko da Estatuaren Aurrekontu Orokorretan jasotzen den alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 3. artikuluan araututako diru-laguntzei erantzuteko zenbateko globala, interesik gabeko gastu bateratuak duen aldaketarekin bat etorriz eta Estatuaren Aurrekontu Orokorrek kontuan hartuta.

Bigarren xedapen gehigarria. *Datu pertsonalak babestea.*

Lege Organiko honetan berariaz jasotzen diren tratamenduak direnak direla, bereziki babestutako datu gisa hartuko dira pertsona fisikoek alderdi politikoei egindako dohaintzen urteko zerrendan jasotako datuak eta, beraz, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko

abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan kategoría horretarako zehazten den araubidea bete beharko dute.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Alderdi politikoei bahitutako ondasun eta eskubideak itzultzea edo konpentsatzea.*

1936-1939 bitarteko erantzukizun politikoei buruzko araudia aplikatuz bahitutako ondasunak eta eskubideak alderdi politikoei itzultzen edo konpentsatzen dizkien abenduaren 15eko 43/1998 Legean aitortutako eskubideak eta ekintzak bi urteko epean gauzatu ahal izango dira, lege hau indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, betiere abenduaren 26ko 50/2007 Legearen azken xedapenetatik lehendabizikoan aurreikusitako araua onartu ostean, orduantxe abiaraziko baita ebazteko epea.

Epe horretan, aurreko administrazio-egintzak berrikeri daitezela eskatu ahal izango da, baldin itzultzeko edo konpentsatzeko eskubidearen aitortpena ukatzen badute, betiere eskaerak abenduaren 15eko 43/1998 Legearen 1 bis artikuluan zehaztutako eskubideei erreferentzia egiten dienean edo berrikusi beharreko ebazpenean arau honetako 6. artikuluari jarraiki onargarriak diren baloraziorako irizpideak edo frogarako elementuak ez direla kontuan hartu irizten denean.

Urteko kontuetan, erreferentzia egingo zaie aurkeztutako itzulketa- edo konpentsazio-eskaerei, ebazteke baldin badaude ere.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Estatutuak egokitzea.*

Bat. Erregistroan inskribatutako alderdi politikoen estatutuak egokitu beharko dituzte alderdi politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoaren 3.2 artikuluan aurreikusitako gutxieneko edukia kontuan izanda; lege hau indarrean jarri osteko lehen bileran heldu beharko diote egokitzapenari, eta aldaketa egiteko eskumena duten organoek hartuko dute beren gain egiteko hori. Estatutuak egokitu ostean, Alderdi Politikoen Erregistroari jakinarazi beharko diote; hala, dagokion ziurtagiria eta estatutu berriak helarazi beharko dizkiote. Egokitzapen hori egin ez bada lege hau indarrean jarri eta hiru urte igaro baino lehen eta Erregistroari ez bazaio jakinarazi, alderdi politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoaren 12 bis artikuluan aurreikusitako prozedura jarriko da martxan.

Bi. Era berean, epe horren barruan, estatutuak egokituta badaude alderdi politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoaren 3.2 artikuluan aurreikusitako edukira, alderdiek jakinarazi beharko diote Erregistroari ez dutela aldaketarik egin behar, estatutuak egokituta daudelako, hain zuzen.

Hiru. Lege hau indarrean jartzen den egunaren eta lehenengo zenbakian aurreikusten den estatutuetakoa aldaketa egin den egunaren artean iraungitako jarduerari dagozkien urteko kontuak zuzendaritza-organo gorenak edo alderdiaren gobernu-organoak onartu beharko ditu kongresuen artean.

Lau. Alderdi politikoen lotuta dauden edo horien mendekoak diren fundazioek eta entitateek alderdi politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoaren laugarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian aurreikusitako betebeharra bete beharko dute, lege hau indarrean jarri eta gehienez ere 6 hilabeteren barruan.

Bigarren xedapen iragankorra. *Kontabilitate Plana egokitzea.*

Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren aplikazio-esparruan txertatutako alderdi politikoen, federazioen, koalizioen eta hautesle-bazkunek ez dute 2013ko irailaren 26ko Kontu Auzitegiaren osoko bilkuraren akordio bidez onartutako alderdi politikoei egokitutako kontabilitate-planean xedatutakoa bete beharko, nola eta ez den erabakitzen, osoko bilkuraren beste akordio baten bidez, lege honetara egokitu dadila, azken xedapenetatik zortzigarrenean jasotzen denari jarraiki.

Hirugarren xedapen iragankorra. *Tokian tokiko kontuak bateratzea.*

Baldin eta alderdi politikoek estatutuetan aurreikusita badaukate tokiko batzarrei kudeaketa ekonomikorako autonomia ematea, alderdiok urtebeteko epea izango dute tokiko kontu bateratuak prestatzeko, alderdi politikoaren finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 14. artikulua indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, artikulua hari emandako Bat.hamar idazketarekin bat.

Xedapen indargabetzailea. *Arauk indargabetzea.*

Alderdi politikoaren finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarria indargabetuta geratuko da.

Azken xedapenetatik lehena. *Botere Judizialaren uztailaren 1eko 1/1985 Lege Organikoa aldatzea.*

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 90. artikuluan 6. zenbakia gehitu da.

«90. artikulua.

1. Probintzia bakoitzean, administrazioarekiko auzien epaitegi bat baino gehiago egongo da. Hark probintzia osoan izango du eskumena, eta hiriburuan egoitza.

2. Kontuen bolumenak hala eskatzen duenean, administrazioarekiko auzien epaitegi bat baino gehiago ezarri ahal izango da legez zehaztutako udalerrietan. Egoitza-udalerrien izena hartuko dute, eta dagokion alderdira hedatuko da haien eskumena.

3. Salbuespen gisa, eskumena autonomia-erkidego beraren barneko probintzia batera baino gehiagotara hedatzen duten administrazioarekiko auzien epaitegiak sortu ahal izango dira.

4. Madril hirian, Espainia osoan jurisdikzioa izanik, administrazioarekiko auzien epaitegi zentralak egongo dira. Horiek lehen auzialdian edo auzialdi bakarrean ezagutuko dituzte Espainia osoan eskumena duten agintariek, erakundeek, organoek eta entitate publikoek agindutako egintzen eta xedapenen kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoak, Legeak ezarritako terminoetan.

5. Era berean, administrazioarekiko auzien epaitegi zentraleri dagokie, auto bidez, Informazioaren Gizarteko Zerbitzuei eta Merkataritza Elektronikoiari buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legearen 8.2 artikuluan aipatzen den identifikazioa ahalbidetuko duten datuak lagatzea; haiei dagokie, halaber, Jabetza Intelektualeko Batzordeak informazioaren gizarteko zerbitzuen eskaintza eteteko edo jabetza intelektuala urratzen duten edukiak kentzeko bigarren atalak hartutako ebazpenak betearaztea, guztia ere aipatutako 34/2002 Legea eta Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bategina aplikatuz (azken hori apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartua).

6. Horrez gain, administrazioarekiko auzien epaitegi zentralak ezagutuko dute alderdi politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoaren 12 bis artikuluan aurreikusitako prozedura.»

Azken xedapenetatik bigarrena. *Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea aldatzea.*

Bat. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 9. artikuluan 3. zenbakia erantsi da:

«9. artikulua.

1. Administrazioarekiko auzien epaitegi nagusiek behar bezala ezagutuko dituzte honako helburu hauek dituzten administrazio-egintzen aurrean ondorioztatutako errekurtsoak:

a) Lehen auzialdian edo auzialdi bakarrean, langileriari dagokion esparruan, Estatuko ministroek eta idazkariek agindutako egintzak direnean, salbu eta ez dituzten berresten errekurtso, ikuskapen edo babes bidez, maila baxuagoa duten organoek emandako egintzak; edo nola eta ez dieten erreferentzia egiten karrerako funtzionarioen harremana azkentzeari edo sortzeari, edota militarrei buruzko 11.1.a) artikuluan jasotako arloei.

b) Lehen auzialdian edo auzialdi bakarrean, Estatuko Administrazio Orokorraren organo zentralen egintzen aurka, 8. artikuluko 2.b) zenbakian aurreikusitako egoeretan.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen lehen auzialdian edo auzialdi bakarrean, xedapen orokorren aurka eta izaera juridiko propioa duten erakunde publikoetatik eta estatuko sektore publikotik eratorritako eskumena Espainia osoan duten entitateetatik datozen ekintzen aurkakoak, betiere 10. artikuluko 1. zenbakiko i) letran xedatutakoari kalterik egin gabe.

d) Lehen auzialdian edo auzialdi bakarrean, Estatuko ministroek eta idazkariek emandako ebazpenen aurkako errekurtsoen kasuan, horiek ondarezko erantzukizunari dagozkienean eta eskatutako zenbatekoa 30.050 eurotik beherakoa denean.

e) Lehen auzialdian, asilo politikoa eskatzen duten eskaerak ez onartzea erabakitzen duten ebazpenetan.

f) Auzialdi bakarrean edo lehen auzialdian, Kirol Diziplinako Espainiako Batzordeak kirolaren arloan emandako eta ikuskapen-bidean dauden ebazpenak.

2. Administrazioarekiko auzien epaitegi zentraleri dagokie, auto bidez, 34/2002 Legearen 8.2 artikuluan aipatzen den baimena ematea, bai eta Jabetza Intelektualeko Batzordeak informazioaren gizarteko zerbitzuen eskaintza eteteko edo jabetza intelektuala urratzen duten edukiak kentzeko hartutako ebazpenak betearaztea ere, guztia ere Informazioaren Gizarteko Zerbitzuei eta Merkataritza Elektronikoi buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legea aplikatuz.

3. Horrez gain, administrazioarekiko auzien epaitegi zentralak ezagutuko dute alderdi politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoaren 12 bis artikuluan aurreikusitako prozedura.»

Bi. V. tituluan V. kapitulua gehitu da.

«V. KAPITULUA

Alderdi politikoak azkentzeko deklarazio judizialaren prozedura

127 quinquies artikulua.

1. Alderdi politiko bat azkentzeko deklarazio judizialaren prozedura 78. artikuluan xedatutakoari jarraiki arautuko da, honako berezitasun hauek kontuan hartuta:

a) Eskaera egiterakoan, zehaztu beharko da alderdi politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoaren 12 bis.1 artikuluan jasotako zer arrazoi dela-eta eskatu den azkentzeko deklarazio judiziala.

b) Eskaera aurkezteko hamabi hilabete izango dira, lege horretako 12 bis.2 artikuluan adierazitako epea iraungi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

c) Epaia alderdia azkentzea erabakitzen duenean, erregistroa jakinarazpena helaraziko zaio hark inskripzioa baliogabetu dezan.

2. Fiskaltza prozesuaren alderdi izango da.»

Azken xedapenetatik hirugarrena. *Legegintzako herri-ekimena arautzen duen martxoaren 26ko 3/1984 Lege Organikoa aldatzea.*

13. artikulua honela aldatu da:

«13. artikulua. *Parlamentuan izapidetzea.*

1. Eskatutako sinadura-kopurua bildu dela egiaztatzen duen jakinarazpena jaso ostean, Mahaiak proposamena argitaratzeko agindua emango du. Hura osoko bilkuraren gai-zerrendan gaineratu beharko da, gehienez ere, sei hilabeteren aurretik.

2. Parlamentuko izapideak Ganberetako Erregelamenduetan jasotzen denari jarraiki egingo dira. Edonola ere, Batzorde Sustatzaileak izendatutako pertsona batek Diputatuen Kongresuko Batzordean agertzeko modua izango du, legegintzako herri-ekimenaren aurkezpena justifikatzen duten arrazoiak azal ditzan, betiere osoko bilkuraren erabakiak hartzeko eztabaida baino lehen.»

Azken xedapenetatik laugarrena. *Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzea.*

Bat. Berrogeita hemeretzigarren artikulua aldatu egin da.

«Berrogeita hemeretzigarren artikulua.

Ministerioaren agindu bidez, tarifa bereziak finkatuko dira hauteskunde-propaganda posta bidez bidaltzeko. Parte hartzen duten alderdiek izango dute horretarako eskubidea, baina gehienez ere behin bidali ahal izango dute hautesle bakoitzeko, hauteskunde-deialdi bakoitzean.»

Bi. Ehun eta hogeita hamalagarren artikuluko 2. zenbakia aldatu egin da.

«2. Hauteskundeen ondorengo berrehun egunetan, Kontu Auzitegiak, bere ikuskapen-funtzioa gauzatuz, hauteskunde-kontabilitateen erregularatasunaren inguruko epaia emango du, eta kontabilitate horretan irregularitasunik hautematen bada edo hauteskundeetako diru-sarreraren eta gastuen arloetan zehaztutako mugak urratu badira, alderdi politikoei buruzko 8/2007 Lege Organikoan araututako zehapen-prozedurak abiarazi eta Estatuak kasuan kasuko alderdiari, federazioari, koalizioari edo taldeari eskainitako diru-laguntzaren esleipenik eza edo murrizketa proposa dezake. Gainera, delitua eragiten duten jarrerak hauteman badira, Fiskaltzari jakinaraziko zaizkio.»

Hiru. Ehun eta berrogeita hamahirugarren artikuluari 3. zenbakia gehitu zaio.

«3. Hauteskunde-gastuen mugak gainditzeagatik sortutako hauteskundeetako arau-hausteei, alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.»

Lau. Ehun eta hirurogeita hamabosgarren artikulua 3. zenbakiaren a) zenbakia aldatu egin da.

«a) Hautesle bakoitzeko 0,18 euro ordainduko da Diputatuen Kongresura eta Senatura zerrenda aurkeztu duen zirkunskripzio bakoitzean, betiere erreferentziako hautagaitzak Ganbera batean edo bestean parlamentuko talde bat osatzeko beharrezko diputatu edo senatariak lortu baditu.»

Bost. Ehun eta laurogeita hamahirugarren artikulua 3. zenbakiaren a) letra aldatu egin da.

«a) Hautesle bakoitzeko 0,18 euro ordainduko da tokiko korporazioetan ordezkaritza lortu duen zirkunskripzio bakoitzean, betiere erreferentziako

hautagaitzak zerrendak aurkeztu baditu kasuan kasuko probintzian 10.000 biztanletik gora dituzten udalerrien 100eko 50ean, eta gutxienez, ordezkaritza lortu badu horien 100eko 50ean.»

Sei. Berrehun eta hogeita zazpigarren artikulua 3. zenbakia aldatu egin da.

«3. Aurreko zenbakietan aipatzen diren diru-laguntzez gain, Estatuak alderdien, federazioen, koalizioen edo taldeen hauteskunde-gastuak ordaintzen lagunduko du, autonomia-erkidego batean, gutxienez, hautesleei hauteskundeetarako gutunak eta txartelak zuzenean nahiz pertsonalki bidaltzen zaizkienean eta hauteskunde-publizitatea egiten denean, betiere honako arau hauei jarraiki:

a) Hautesle bakoitzeko 0,13 euro ordainduko da, hautagai-zerrendak gutxienez diputatu bat lortu badu, eta, gutxienez, igorritako baliozko botoen ehuneko 15 lortu badu.

b) Hautesle bakoitzeko 0,09 euro ordainduko da, hautagai-zerrendak gutxienez diputatu bat lortu badu, eta, gutxienez, igorritako baliozko botoen ehuneko 6 eskuratu badu.

c) Hautesle bakoitzeko 0,025 euro ordainduko da, hautagai-zerrendak gutxienez diputatu bat lortu badu, eta, gutxienez, igorritako baliozko botoen ehuneko 3 eskuratu badu.

d) Hautesle bakoitzeko 0,016 euro ordainduko da, hautagai-zerrendak gutxienez diputatu bat lortu badu, eta, gutxienez, igorritako baliozko botoen ehuneko 1 eskuratu badu.

Diruz lagundutako kantitatea ez da artikuluko 2. zenbakian aurreikusitako mugaren barnean sartuko, baldin eta frogatzen bada zenbaki horretan aipatzen den jardura behar bezala egin dela.»

Azken xedapenetatik bosgarrena. *Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra aldatzea.*

13. artikuluko 2. zenbakia aldatu egin da:

«2. Honako egoera hauetako batean dauden pertsona edo entitateak ezingo dira izan arau honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradun edo entitate laguntzaile, nola eta diru-laguntzaren araudiak ez duen salbuespenak jasotzen, laguntzoz izaera dela eta:

a) Epai irmo bidez, diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorra jaso dutenek edo prebarikazio, eroskeria, diru publikoen erabilera bidegabekoa, influentzia-trafiko, iruzur eta ordainarazpen ilegal edo hirigintza-delituak direla eta zigorra jaso dutenek.

b) Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaria egin badute, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo badituzte, hartzekodunen konkurtsoan deklaraturik badaude (hark eraginkortasuna hitzarmen bidez bereganatu duenean salbu), epailearen esku-hartzearen menpe badaude edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta badaude, hartzekodunen konkurtsoa sailkatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldi hori oraindik amaitu gabe egonik.

c) Administrazioarekin egindako edozer kontratu ebazpen irmoz indargabetu bada, dena delako kausagatik errudun deklaraturik gero.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo pertsona juridikoen ordezkaritza legala dutenak, Estatu Administrazio Orokorreko goikargudunen jarduna arautzeko martxoaren 30eko 3/2015 Legean edo Administrazio Publikoaren Zerbitzura dauden Langileen Bataerantzintasunari buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aipatutako kasuren batean sartuta badaude edo

Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautetsiak badira, bertan ezarritako baldintzetan edo arlo horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudietan ezarritakoetan.

e) Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ez betetzea, erregelamenduz zehazten den moduan.

f) Egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean izatea.

g) Diru-laguntzak itzultzeko betekizunen ordainketak egunean ez izatea, erregelamendu bidez zehaztutako terminoetan.

h) Epai irmo bidez zehatuta egotea, eta beraz, diru-laguntzak lortzeko aukera galtzea, lege honetan edo beste batzuetan zehaztutakoari jarraiki.

i) Ezin izango dute onuradun izan 11.3 artikuluko bigarren lerrokadan aurreikusitako taldeek, baldin eta kideren batek aurreko debekuren bat badu.

j) Diru-laguntzak lortzeko debekua izango dute, halaber, irizten bada, zuzentzen dituzten pertsonengatik edota beste zirkunstantzia batzuegatik, beste aurreragoko enpresa batzuen jarraipena direla edota beste enpresa batzuetatik eratorriak direla, eraldatze, bat-egite edo ondorengotza arrazoiengatik.»

Azken xedapenetatik seigarrena. *Lege arruntaren maila.*

Lege honetako azken xedapenetatik bigarrena eta azken xedapenetatik bosgarrena lege arrunt izango dira (diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren aldaketa).

Azken xedapenetatik zazpigarrena. *Aforamenduak.*

Azkenik, legitimatutako subjektuek beharrezko ekimenak sustatuko dituzte, agintariak eta kargu publikoak auzipetzeko eskumena mugatzeko Auzitegi Gorenari eta Justizia Auzitegi Nagusiei.

Azken xedapenetatik zortzigarrena. *Alderdi politikoei egokitutako kontabilitate-plana.*

Kontu Auzitegiak lege honetan xedatutakora egokituko du, lege hau indarrean jarri eta urtebeteren barruan, alderdi politikoei egokitutako kontabilitate-plana, 2013ko irailaren 26ko osoko bilkuraren akordio bidez onartutakoa. Egokitzapen horretan batasunen, federazioen eta konfederazioen berezitasunak hartuko dira kontuan, bai eta alderdien koalizio iraunkorrenak ere.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Foru-ogasunak.*

1. Lege honetan xedatutakoa Nafarroako Foru Erkidegoari aplikatzeko garaian, foru-araubidea dela-eta, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 64. artikuluan ezarritakoa beteko da, Estatuaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko ekonomia-itunean xedatutakoari jarraiki.

2. Lege honetan xedatutakoa Euskal Autonomia Erkidegoari aplikatzeko garaian, foru-araubidea dela-eta, Ekonomia Itunari buruzko Legean xedatutakoa beteko da.

Azken xedapenetatik hamargarrena. *Indarrean jartzea.*

Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da lege hau indarrean; salbuespena alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 14. artikulua izango da, Bat.hamar artikulua emandako idazketarekin bat, 2016ko urtarrilaren 1ean jarriko baita indarrean.

Horrenbestez,
Lege organiko hau betetzeko eta betearazteko agintzen diet espainiar guztiei,
norbanakoei eta agintariei.

Sevillan, 2015eko martxoaren 30ean.

FELIPE E.

Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY